



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 6a

95. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duena. (2. or.)
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Kargu Publikodunen Ondarearen Bilakaera Fiskalizatzeari buruzkoa. Proiektua erretiratzea (4. or.)

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena. Eranskina (9. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio 2012ko azaroan onetsitako mozioa bete dezan; mozioan, bermatu egiten zen lesbianen eta emakume ezkongabeen lagundutako ugalketarako eskubidea. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Madrilen hautagaitza babesten baitu 2020ko Joko Olinpiarrek eta Paralinpiarrek antolatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.)

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroan mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuei buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina (17. or.).

---

A saila:  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2013ko uztailaren 17an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parla-mentura igorri du Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumi-tzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapi-detzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalme-na Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordea-ren esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko irailaren 30ean, eguerdiko hamabietan**, bukatu-ko da. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artiku-luan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proiektua, Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Komunitatea lehenengoeta-koa izan zen adiktiboak gerta daitezkeen jardun eta jokabideei konponbideak ematen saiatzen. Horren erakusgarri da Nafarroako Gobernuak 1970eko hamarkadaren amaieratik garatu dituela alkoholismoari eta bestelako toxikomaniei arreta emateko programak eta zerbitzuak; 1986an Alko-holismoaren eta Toxikomanien Plana onetsi zuen, une hartako Osasun Mentaleko Planari erantsi zitzaiona, eta 1993an Droga-mendekotasunaren aurkako Foru Plana onetsi zuen.

Araugintzaren ikuspuntutik ere, adingabeei alkohola eman, zerbitzatu eta saltzea debekatze-ko politikaren oinarri diren kontsiderazioei eta prin-tzipioei lege maila eman die Nafarroak. Adingabe-ak babesteko joera hori jaso eta islatu zen Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legean. Xedapen horren zioen azalpenean ezarri zen ikuskizun eta josteta jardueretako loka-letan alkoholaren kontsumorako baimena edo aukera ematea debekatzea ez zela aski; hortaz, beste lokal mota batzuetan ere ezartzen zuen debekua, gehienbat haur eta gazteentzako lokale-tan.

Bestetik, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 5/2005 Foru Legeak 30. artiku-luan aurreikusten du zenbait ekintzaren, bitarteko-ren eta produktoren gaineko debekuak eta mugak ezartzeko erregelamenduzko garapena egin beharko litzatekeela, eta finkatzen ditu bereziki kontsumoaren eta merkataritzaren esparruak. Ildo

berean, lege horrek, 32.3 artikuluan, prebentzio jardueretarako lehentasunezko jarduketa esparrua osasun esparrua dela ezartzen du, eta, zehazki, alkoholaren, tabakoaren eta beste droga batzuen kontsumoaren prebentzioa. Esparru horietan guztietan gurasoek, tutoreek edo guraso-ahalaren titularrek bere gain hartu behar duten arduraren garrantzia ezertan gutxitu gabe, administrazio publikoek ezarri behar dituzte neurri murriztaileak, hori lagungarria izan dadin sistema bat taxutzeko, adina dela-eta ahulagoak izan daitezkeen pertsonak jokabide potentzialki adiktiboetatik urrun edukitzeko. Denboraren poderioz, ordea, ohitura eta usadio sozial berriak zabaldu izanak eta bizikidetzaren sozialerako printzipio batzuk antolatu beharrak premiazko egin dute 1991ko Foru Legearen aldatetara heldzea, alkohola unean bertan kontsumitzeko baimena duten lokalak ez diren alkoholaren salmentarako ordutegia mugatzeko. Horrekin, bixede bete nahi ditu arauak: batetik, toki publikoetan kontsumorik ez izatea, jokabide zibikoak bestelakotu egiten baititu, eta, bestetik, osasun publikoarentzako balizko arriskuak arintzea, alegia substantzia instituzionalizatuak deitzen direnekiko tolerantziak ekar ditzakeenak.

Horrez gain, ordutegien muga hori betetzen dela bermatzeko, arau-hauste larria izanen da ordu horietan edari alkoholodunak saldu, eman edo zerbitzatzea.

Azkenik, legearen aldatetaren xedeen artean nabarmendu behar da autobia eta autobideetako zerbitzugune eta zerbitzu-eremuek izaera berria izanen dutela arauaren ondorioetarako, alkohola saldu eta ematea zeharo debekaturik izanen baitute aurrerantzean, zein den ere edariaren gradua, horrela saihestuko baita substantzia hori edozeinek eskuratzeko modua izatea ibilgailuen zirkulazioarekin eta, beraz, bide segurtasunarekin lotura zuzena duten instalazioetan.

**Artikulu bakarra.** Adin txikikoei alkoholodun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legearen aldatetara.

**Bat.** Adin txikikoei alkoholodun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen da, eta hemendik aurrera honako testu hau izanen du:

“1. Debekaturik dago honako toki hauetan 18 gradu baino gehiagoko alkoholodun edariak saldu, eman edo zerbitzatzea, dohainik izan ala ez:

a) Goi mailako irakaskuntzako ikastetxeetan eta unibertsitate zentroetan.

b) Administrazio Publikoaren egoitzetan.

2. Era berean, debekaturik dago honako toki hauetan mota guztietako alkoholodun edariak saldu, eman edo zerbitzatzea, dohainik izan ala ez:

a) Autobia eta autobideetako zerbitzu-guneetan eta zerbitzu-eremuetan.

b) Edari alkoholodunak saldu edo zerbitzatzeko baimena duten baina unean bertan kontsumitzeko ez diren saltokietan, zein den haien ordutegia, 22:00etatik biharamuneko 09:00etara. Ordutegi horretara bildu beharko dira, halaber, salmenta ibiltaria, urrutiko salmenta eta etxez etxekoa.”

**Bi.** Adin txikikoei alkoholodun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legearen 11. artikulua 2. idatz-zatia aldatzen da, eta hemendik aurrera honako testu hau izanen du:

“2. Zentro, lokal eta saltokietan 4. artikuluan aipatutako baldintzak urratuz edari alkoholodunak saldu, eman edo zerbitzatzea, dohainik izan ala ez.”

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Kargu Publikodunen Ondarearen Bilakaera Fiskalizatzeari buruzkoa

### PROIEKTUA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Gobernuak 2013ko uztailaren 3an onetsitako erabakia, zeinaren bidez erretiratu baita Nafarroako Kargu Publikodunen Ondarearen Bilakaera Fiskalizatzeari buruzko Foru Lege proiektua –proiektua maiatzaren 6an izapidetu zen eta bere testua eransten da–, Erregelamenduko 150. artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aurkezturiko Foru Lege proiektua erretiratu izanari dagokionez.

2. Erabaki hau eta bere eranskina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari igortzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANSKINA

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Kargu Publikodunen Ondarearen Bilakaera Fiskalizatzeari buruzkoa

### ZIOEN AZALPENA

Espainiako testuinguru juridikopolitikoan Nafarroako Foru Komunitatea aitzindaria izan da, kalitatez nahiz kantitatez, bere goi kargudunen jardueraren eta ondasunen gardentasunari dagozkion gaietan; Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea izan da gai horiek irizpide moderno eta aurreratuekin erregulatu duen azken araua. Ordainsarien, jardueren eta ondasunen publizitateari buruzko neurriak, batetik, eta Gobernuaren ekintza eta kontumateak gidatu behar dituzten gardentasun printzipioak, bestetik, araubide instituzionalaren kalitate demokratikoa eta herritarrekin duen harremana hobetzeko exijentzia etikoaren eta politikoa-ren testuinguruan kokatu behar dira.

Eremu horretan hobekuntzak egiteko asmoari erantzunez, egokia da neurriak indartzea, ez gardentasuna lortzekoak oraingoan, baizik eta, kasu honetan, ordezkari politikoen jardun publikoaren

eta haien ondareesparru pribatuaren arteko elkarrengarria kontrolatzekoak.

Horretarako, foru lege honek sakoneko kontrola egiteko tresna bat ezartzen du, baliagarria izanen dena kargu publikodunen jokabide irregularrei eta ustelkeriarako edo injustuki aberasteko aukerei aurrea hartzeko, eta herritarrei berme ematen diena politikarien jokabide gardenaz. Horrekin batera, irregularitasunak gertatzeko aukerak gutxitzen lagunduko du, baita indargabetzen ere zigorgabetasunaz baliatzeko modurik badelako sentsazio oro. Tresna horrek goi kargudunen eta populazio handiko entitateetako udal ordezkarien diru-sarrerak eta ondarea fiskalizatuko ditu, lege indardunekin eta kudeaketa ordenatuekin bat ote datozen egiaztatzeko, irregularitasun zalantzarik bat ere izan ez dadin.

Eginkizun hori Nafarroako Kontuen Ganberak beteko duela ezartzen da -zeregin berria bere eskumenen esparruan-, ospe eta zorroztasun frogatuko erakundea izaki, eta kontuan hartuta, gainera, fiskalizazio hori gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak dituela eta guztiz independentea dela fiskalizazioaren menpe dauden kargudunengandik, bere jardunean neutraltasuna eta inpartzialtasuna ezinbestez bete beharreko baldintzak dira eta. Kontuen Ganberak esku-hartzeko arrazoibidea da, azken finean, goi kargudunek edo udal ordezkariak beraien lana betetzean jasotzen dituzten ordainsariei izaera publikoa dutela.

Honen bidez ezartzen den tresnaren xedea da, hortaz, goi kargudunaren ondareak kargu publikoan aritu bitartean izandako aldaketaren azterketa zorrotza egitea, jatorriaz zalantzarik balego –legez kanpoko ote den– argitzeko. Horretarako, Kontuen Ganberak erabili ahal izanen ditu kargu publikodunaren izendapena egitean dauden ondasun aitopenak, karguan aritu bitartean egiten dituen ondasun eta jarduera aitopenak, eta agintaldia amaituta egin behar duena. Era berean, ondorio fidagarriak ezartzeko behar duen informazio osagarri guztia –bankukoak, fiskala– eskatu ahal izanen dio goi kargudunari.

Nolanahi ere, egokitasunari buruzko kontrol horrek –gure antolamendu juridikoan dauden bide juridikozkoak bereizirik ezartzen dena– ez du ahaztu behar barne tresnak ere ezarri behar direla, ziurtatzeko emaitza justua izanen dela fiskalizatuarentzat eta, beraz, kontrajartzeko printzipio-

en menpe egonen dela, hasierako balizko zantzu- en berrazterketak sendotuta, jakinik zein ondorio larriak izanen dituen, berretsiz gero, kontrol horren xede diren pertsonen izen on pertsonal eta politikoan. Tresna jurisdikzionalak instantzia desberdinak ezartzen dituzte, bai eta hasiera batean bestelakoak diren bertsioak aurrez aurre jartzeko aukera desberdinak ere; gisa berean ezarri behar-ko dira berme horiek kontrol honetan, ondorioak egiazkoak, objektiboak eta zuzenak izanen direla ziurtatuko duten kontrajartze-faseen bidez.

Fiskalizazio lana amaituta, banakako txosten soil bat eginen da, honakoak zehatz-mehatz azalduko dituena: goi kargudunaren ondarearen egoera eta aldaketa egokiak direla, egoera ez dela egokia funtsean, edo balorazioa egitea ezinezkoa dela, betiere datu ekonomiko, finantzario edo ondarearen gainekorik eman gabe. Fiskalizatutako subjektuaren ondasun eta eskubideen gardentasunaren eta ezagutza publikoaren ondorioetarako, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean ezarritako publikotasuna aplikatzen ari da dagoeneko. Foru lege honek ezartzen du zein diren ondorioak bi kasuetan, bai fiskalizatutako subjektuak laguntza emateko betebeharra betetzen ez duenean sortutakoak bai haren ondarearen egoera egokia ez dela egiaztatzeak eragindakoak. Era berean, ezartzen du Kontuen Ganbera beharturik dagoela agintariei edo administrazio organo eskudunei jakinaraztera azterketatik ondorioztatzen diren erantzukizun penal edo administratiboan zantzuak, esparru publikoari nahiz pribatuari dagozkionak.

Lege honetan aurreikusitako erregulazioak Nafarroako Gobernu kideen estatutu pertsonalari eragiten dionez, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren goi kargudunak menpean hartzen dituen araubide juridikoari ere, beharrezkoa da arau-egokitzapenak egitea Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean eta Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean. Zentzu horretan berean eragiten dio, halaber, foru lege honen menpeko alkate eta zinegotzien estatutu juridikoari, baina ez du horregatik oinarritzko araudiaren kontra jotzen, osatu egiten baitu Nafarroak Toki Administrazioaren arloan dituen eskumenetan oinarrituta. Aurreikusirik dago, orobat, kontrol tresna honek Parlamentuko kideak ere hartzea bere eraginpean, eta, beraz, beharrezkoak diren aldaketak eginen dira erakunde hori arautzen duen erregelamenduan. Azkenik, Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko

19/1984 Foru Legea aldatu behar da, erakunde horren eskumenei eginkizun berria gehitzeko.

### **1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honek kontrol eta fiskalizazioarako tresna derrigorrezko bat ezartzen du, hurrengo artikuluan ageri diren kargu publikodunen ondarearen aldaketa eta ardura publikoetan aritu bitartean izan dituzten diru-sarrerak bat ote datozen egiaztatzeko.

### **2. artikulua.** Aplikazio eremu subjektiboa.

1. Foru lege honetan ezarritako kontrol eta fiskalizazio tresnaren menpe egonen dira kargu publikodun hauek:

a) Nafarroako Gobernu kideak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren goi kargudunak, zehazki Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean halakotzat jotzen direnak.

b) Nafarroako 5.000 biztanletik gorako udaletako alkateak.

c) Nafarroako 10.000 biztanletik gorako udaltako zinegotziak.

2. Foru lege honek kargudun publikoaren terminoaz egiten dituen aipamen guztiak aurreko idatzatian aurreikusitakoei buruzkoak direla ulertu behar da.

### **3. artikulua.** Kontuen Ganberaren fiskalizatze lana.

1. Nafarroako Kontuen Ganberak eginen ditu kargu publikodunen ondarearen eta diru-sarreraren auditoria eta fiskalizazio lana, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Kontuen Ganberako jarduketan xede nagusia izanen da kargu publikodunaren ondarean izandako aldaketak eta fiskalizazioa hasi arte kontzeptu guztietan lortu dituen diru-sarrerak bat ote datozen egiaztatzea.

### **4. artikulua.** Fiskalizazio aldia.

Fiskalizazioaren xedea den denbora-epea kargu publikodunaren agintaldia izanen da, inola ere hartu gabe, beraz, karguaz jabetu aurreko aldirik, eta kargua uzten duenean amaituko da. Nolanahi ere, aldi horren fiskalizazioa kargua utzi ondoko bi urteetan has daiteke.

### **5. artikulua.** Betebeharrak.

Kontuen Ganberak urtero zehazten duen programari jarraikiz fiskalizazioaren menpe dauden

kargu publikodunak beharturik egonen dira erakunde horri laguntza ematera, foru lege honen agindua betetzeko eskatzen zaien dokumentazio ekonomiko-finantzarioa eta ondarearena, Administrazioak ez daukana, emanez, eta bereziki honako hau:

– Errenta eta ondare aitortenak.

– Bankuetako, kreditu-entitateetako eta goi kargudunak kontratuak dituen finantza erakunde guztietako laburpen eta mugimendu bankarioak.

– Hirugarrenekin –partikularrak barne– izandako muntako transakzio ekonomikoak frogatzen dituzten ziurtagiriak.

#### **6. artikulua.** Eginbeharrak ez betetzea.

Kargu publikodunak ez baditu betetzen foru lege honek dakartzan betebeharrak, Kontuen Ganberak berariazko errekerimendua eginen dio kargu publikodun horri, haren betebeharrak gogoraraziz eta ohartaraziz eginbeharrak bete gabe segitzen badu egoeraren berri emanen zaiola Nafarroako Gobernuari edo Udalari, kasuan kasukoari, eta haren jokabidea urteko txostenean jasoko dela, ondoren arautzen den eta Nafarroako Parlamentura igorriko den horretan hain zuzen.

#### **7. artikulua.** Prozedura.

1. Ondoren zehazten den moduan, Kontuen Ganberak banakako txosten soil bat eginen du kargu publikodun fiskalizatu bakoitzari buruz, eta urteko txosten bat, kargu publikodunen fiskalizazioaren emaitza orokorra jasoko duena.

2. Banakako txosten soilaren amaieran kalifikazio hauetako bat emanen da:

a) Kargu publikodunaren ondarearen egoera eta aldaketa egokiak eta zuzenak dira.

b) Kargu publikodunaren ondarearen egoera eta aldaketa desegokiak eta funtsean okerrak dira.

c) Ezinezkoa izan da balorazioa egitea.

3. Kargu publikodunaren ondarearen egoera eta aldaketa egokiak eta zuzenak izanen direla ulertuko da mugimendu ekonomiko-finantzarioen azterketaren emaitzak adierazten duenean hasierako ondarea, karguan aritutako denboran lortutako diru-sarrerak eta amaierako ondarea modu arrazoizkoan bat datozela.

4. Ondorioak behin betiko txosten bihurtu aurretik, artikuluko honen 2. idatz-zatiaren b) eta c) letretan aurreikusitako kasuetan, fiskalizatutakoak ohartarazpena jaso beharko du, kalifikazio hori jaso dezakeela esanez eta frogekin jakinaraziz, behar bezala arrazoituta eta zehaztuta, zein duda

eta zantzu dauden egokitasun faltaren inguruan. Fiskalizatutakoak 30 egun baliodun izanen ditu, jakinarazpena jasotzen duenetik, alegazioak aurkezteko edo bere intereseko agiriak edo bestelako datuak emateko.

5. Interesdunak aurkeztutako alegazioak eta dokumentazioa aztertu ondoren, ondarearen aldaketa desegokiaren balorazioak edo balorazioa egiteko ezinak bere horretan badirau, Kontuen Ganberak behin betiko txostenaren zirriborroa igorriko dio fiskalizatutakoari, arrazoiak eta oinarritzat hartzen diren datu eta irizpide guztiak adierazirik.

6. Zirriborroa jaso ondoren, kargu publikodunak eskubidea izanen du alegazio berriak aurkezteko eta kasua bigarrenez azter dadin; era berean, fiskalizazioa beste auditore edo fiskalizazio talde batek egin dezala eskatu ahal izanen du.

7. Banakako txosten soil bat behin egin ondoren, kopia bat emanen zaio kargu publikodun fiskalizatuari.

#### **8. artikulua.** Urteko txostena.

Kontuen Ganberak urteko txosten bat eginen du kargu publikodunei egindako fiskalizazioen emaitza orokorrari buruz, soilik datu hauek jasota:

– Kargudun fiskalizatuaren identifikazioa eta banakako txosten soilaren kalifikazioa.

– Foru lege honen 5. artikuluan adierazten diren eginbeharrak bete ez diren kasuen zerrenda, kargua zein den adierazita.

– Foru lege honen 9. artikuluari jarraikiz, balizko irregulartasunen zantzuak egoteagatik txostenen ondorioak agintari edo erakunde administratibo edo juridikzionalari jakinarazi zaizkienean, kasu horien zerrenda –kargua identifikatu gabe–.

#### **9. artikulua.** Erantzukizunak.

Foru lege honetan adierazitako eginkizuna betetzean Kontuen Ganberak erantzukizun administratibo, penal edo bestelakoen zantzuak daudela ikusiz gero, beharturik egonen da haien berri ematera kasu bakoitzean eskumena duen agintari edo organo administratibo edo juridikzionalari.

#### **10. artikulua.** Fiskalizazio programa.

1. Kontuen Ganberaren urteko fiskalizazio programaren barruan sartuko da, urtero, atal berriazko bat, aurreikusiko duena foru lege honen 2.1 artikuluko a) letran jasotako kargu publikodunen %20 fiskalizatzea, gutxienez, eta 2.1 artikuluko b) eta c) letran jasotako %10, gutxienez.

2. Halere, Nafarroako Gobernuak lehendakariak eta kideak, kargua berri gabe eginkizunak

betetzeari uzten diotenean, nahitaez sartuko dira kargua utzi ondoko bi urteetako fiskalizazio programetan.

3. Ekitaldi bakoitzean fiskalizatu beharreko subjektuak hautatzeko, agintaldi publikoaren amaiera izanen da kontuan hartuko den irizpide nagusia.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Nafarroako Parlamentuko kideak hartzea.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete-ko epean, Nafarroako Parlamentuak behar diren aldaketak eginen ditu bere Erregelamenduan, bere kide guztiak fiskalizatzeko beharra ezartzeko, foru lege honetan proposatutakoaren bide beretik.

**Azken xedapenetako lehena.** Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 34. artikulua aldaketa.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 34. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“34. artikulua. Bateriaezintasunak eta fiskalizazioa.

1. Nafarroako Gobernu kideen bateraezintasunak arautzen dituen foru legeak ezartzen duenari jarraikiz erabaki eta zehaztuko da Nafarroako Gobernu kideen bateraezintasunaren araubidea.

2. Nafarroako Gobernu kideen bateraezintasunaren ondarea fiskalizazioaren eta auditoriaren menpe egonen da Nafarroako kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzea arautzen duen foru legean ezarritako moduan.”

Bi. 44. artikulua aldaketa.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 44. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“44. artikulua. Bateriaezintasunak eta fiskalizazioa.

1. Nafarroako Gobernu kontseilarien bateraezintasunak arautzen dituen foru legeak ezartzen duenari jarraikiz erabaki eta zehaztuko da Nafarroako Gobernu kontseilarien bateraezintasunaren araubidea.

2. Nafarroako Gobernu kontseilarien ondarea fiskalizazioaren eta auditoriaren menpe egonen da Nafarroako kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzea arautzen duen foru legean ezarritako moduan.”

**Azken xedapenetako bigarrena.** Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari buruzko abenduaren 4ko 19/1996 Foru Legearen aldaketa.

10. bis artikulua berria gehitu da, honako edukia duena:

“10. bis artikulua. Kontuen Ganberaren fiskalizatze lana.

Foru lege honetan zehaztutako goi kargudunen ondarea Kontuen Ganberaren fiskalizazioaren eta auditoriaren menpe egonen da Nafarroako kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzea arautzen duen foru legean ezarritako moduan.”

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 56. artikulua 4. idatz-zatia gehitzen zaio. Hona hemen testua:

“4. Nafarroako toki korporazioetako kideen ondarea fiskalizazioaren eta auditoriaren menpe egonen da Nafarroako kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzea arautzen duen foru legean ezarritako moduan.”

**Azken xedapenetako laugarrena.** Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen aldaketak.

Bat. 1. artikulua aldatzea.

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 1. artikulua testu hau izanen du:

“1. artikulua.

Nafarroako Kontuen Ganbera Nafarroako Parlamentu edo Gorteen menpeko organo teknikoa da, Foru Komunitateko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta izaera publikoa duten funtsak fiskalizatzen dituena. Horrekin batera, Nafarroako kargu publikodunen egoera ekonomiko eta finantzarioa ere fiskalizatuko du Nafarroako kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzea arautzen duen foru legean ezarritako moduan.”

Bi. 4.1. artikulua letra bat gehitzea.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 4.1. artikulua letra bat gehitu zaio, eta testu hau izanen du:

“4. artikulua.

1. Nafarroako Kontuen Ganberak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako sektore publikoaren kontuak eta kudeaketa ekonomikoa kontrolatzea.

b) Parlamentuari aholku ematea gai ekonomiko eta finantzarioetan.

c) Kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzea dagokion foru legean ezarritako moduan.

Hiru. 8. artikuluari letra bat gehitzea.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8. artikuluari letra bat gehitu zaio, eta testu hau izanen du:

g) Kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzeko lanak egitea dagokion foru legean ezarritako moduan.

Lau. 10.1. artikuluari letra bat gehitzea.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 10.1. artikuluari letra bat gehitu zaio, eta testu hau izanen du:

10. artikulua.

1. Kontrol eta fiskalizazio eginkizunak betetzean, Kontuen Ganberak ahalmena izanen du honetarako:

a) bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak dituen datu, txosten, agiri eta aurrekariak eskatzeko Nafarroako sektore publikoa osatzen duten erakunde eta entitate guztiei.

b) Bulego publikoetako dokumentazio guztia, liburuak, dirua eta baloreak, gelak, deposituak eta biltegiak eta beste edozein establezimendu oro har, ikuskatu eta egiaztatzea, bere eginkizunak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen badu.

c) Kargu publikodunak, bere ondarearen bilakaera Nafarroako kargu publikodunen ondarearen bilakaera fiskalizatzea arautzen duen foru legean ezarritako moduan fiskalizatzeko, aurkeztu behar duen dokumentazio guztia ikuskatu eta egiaztatzeko.

**Azken xedapenetako bosgarrena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina arau eman ditzan foru lege hau aplikatu eta garatzeko.

**Azken xedapenetako seigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru lege proposamena, Nafarroako Polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.**

### *ERANSKINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako idazkia, zeinaren bidez eskatzen baita bi eranskin sartzea Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenaren bukaran –proposamena 2013ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, hona ERABAKIA:

**1.** Aipatu Foru Lege proposamenean bi eranskin horiek sartzea.

**2.** Erabaki hau eta eranskinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**3.** Erabaki hau eta eranskinak Nafarroako Gobernuari igortzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **I. ERANSKINA.** **Proba fisikoak**

Foruzaingoaren eginkizunak betetzeari begira egoera fisikoak duen garrantzia dela-eta, urteko 18 konpentsazio laneguneko saria ezarri da, agenteak bere prestakuntza fisikorako baliatzen duen denboraren zati bat itzultze aldera.

Proba horien helburua da poliziaren egoera fisiko orokorra baloratzea eta, hortik aurrera, egoera hori mantentzea edo hobetzea, beharrezkoa bada. Horretarako, lau taula prestatu dira, adinaren eta puntuazioaren arabera bereizten direnak eta ondoren zehazten diren kirol probekin lotura dutenak:

Gorputzaren beheko aldearen potentzia (jauzi bertikala)

Gorputzaren goiko aldearen potentzia (beso-flexioak)

Erresistentzia aerobikoa (3.000 metro lauak) edo (Ruffierren Testa)

Erresistentzia anaerobikoa (50 metro bultzadakerekin)

Proba fisiko horiek gainditzeko, beharrezkoa izanen da lor daitezkeen **100 puntuetatik 42** eskuratzea, guztira. Ez da beharrezkoa izanen proba bakoitzean gutxieneko puntuazio bat lortzea. Azken puntuazioa emaitzen baturatik aterako da.

Tauletan ez denez ezartzen gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizketarik, emakumeak kokatu beharko dira justu goragoko hirugarren adin-taldean. Adibidez, emakumezko izangai batek 20 urte baditu, 28 urtetik 30erako adin-taldean puntuatuko da.

### **JAUZI BERTIKALA**

Hasierako posizioa: zutik, oinak elkarrekin arbel-aparatuaren aurrean, bi besoak gorantz luzatuta erabat (sorbalde lerroa plano horizontal berean), altuera markatuko da arbel-aparatutik gertuen dagoen besoko hatz-puntekin (klarionez blaituak egonen dira).

Exekuzioa: zangoak tolestuta, jauzi bertikala egingen da, eta lortutako altuera berria adieraziko da. Proba honetan lortutako marka izanen da jauziaren bidez lortutako altueraren eta hasieran hartutakoaren arteko aldea, zentimetrotan. Zilegi izanen da orpoak altxatzea eta zangoak mugitzea, betiere desplazamendurik gabe edota oin batek lurzorurekiko kontaktua erabat galdu gabe. Bi ahalegin jarraituetatik onena hartuko da kontuan. Baliozkoa izanen da egokien jotzen den antzeko edozein neurtze-modu.

**BESO-FLEXIOAK**

Hasierako posizioa: Egileak, lurrean ahuspez etzanda, eskuak jarrera erosoenean jarriko ditu eta besoak lurrarekiko perpendikular mantenduko ditu.

Exekuzioa: Posizio horretatik abiatuta, egileak ahalik eta beso-flexio eta -luzaketa gehien eginen ditu, denbora mugarik gabe, kontuan hartuta flexio-luzaketa bat egintzat joko dela kokotsarekin lurzorua ukitu eta hasierako posiziora itzultzen denean, denbora guztian sorbaldak, bizkarra eta zangoak luzapen batean mantenduta. Baliozkotzat joko dira aldi berekoak ez diren beso-flexio eta-luzaketa guztiak, kokotsa eta oin- eta hatz-puntak ez diren gorputzaren beste atalik lurzorian ez bada bermatzen. Gehienez ere bost segundoko atsedena hartu ahalko da hasierako posizioan (besoak luzatuta).

Kokotsak lurzorua ukitzen duen gunea gehienez ere 6 zentimetroko bigungarriz estali ahalko da.

**50 METRO BULTZADAREKIN**

Hasierako posizioa: Egilea helmugatik 60 metrora dagoen lerroaren atzean jarriko da. Irteera-unea eta -abiadura nahierakoak izanen dira.

Exekuzioa: Kronometratzaileak eskuz jarriko du abian kronometroa, egilea erreferentzia puntura iristen denean (helmugatik 50 metrora egonen da; hau da, irteeratik 10 metrora). 50 metroko distantzia ahalik eta denbora laburrenean bete behar da. Kronometroa eskuz geraraziko da helmuga gaindizten denean. Proba honen bidez, erresistentzia

anaerobikoa neurtu nahi da eta ekidin nahi dira irteera faltsuak eta ihesaldiak, eta halaber, irteera-teknika hobetzea eta abar.

**3000 METRO LAUAK**

Hasierako posizioa: zutik, irteera-lerroaren atzean.

Exekuzioa: kronometratzaileak "prest"... "ja!" aginduko du, eta orduan izangaiek ibilbideari ekinen diote, hiru mila metroak ahalik eta denbora laburrenean bete arte.

**RUFFIERREN TESTA**

Hasierako posizioa: egilea, pulstometro bat duela, zutik jarriko da, zangoak sorbalden zabaleraren arabera bereizita. Besoak aurretik gurutzatuta edo aurrerantz luzatuta izanen ditu, edo eskuak aldaken gainean bermatuko ditu.

Exekuzioa: "Ja!" esaten denean, 30 eserialdi-erdi eginen dira (belaunak 90º arte tolestu eta luzatu) 45 segundotan, erritmo etengabea, posizio orekatua mantenduz.

Pulstua hiru aldiz hartuko da:

P1: Pulstu-hartzea, proba egin aurreko unean.

P2: Pulstu-hartzea, proba amaitu bezain laster.

P3: Pulstu-hartzea, proba egin eta minutu batera.

Ondoko formula aplikatuko da:

$$\text{Indizea} = \frac{IP1 + P2 + P3 - 200}{10}$$

**JAUZI BERTIKALA. TAULA**

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
18tik 21era	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66	69	70	71
22tik 24ra	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66	69	70
25etik 27ra	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66	69
28tik 30era	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66
31tik 33ra	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63
34tik 36ra	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	50	52	54	56	58	60
37tik 39ra	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	50	52	54	56	58
40tik 42ra	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	50	52	54	56
43tik 45era	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47	50	52	54
46tik 48ra	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47	50	52
49tik 51ra	17	18	19	20	21	22	23	24	25	27	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47	50
52tik 54ra	15	16	17	18	19	20	21	22	23	25	27	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47
55etik 59ra	13	14	15	16	17	18	19	20	21	23	25	27	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45
60tik 64ra	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	23	25	27	28	29	30	31	32	33	34	35	37	39	41	43

TAULAKO BALIOAK ZENTIMETROTAN ADIERAZTEN DIRA

**BESO-FLEXIOAK. TAULA**

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
18tik 21era	9	10	12	14	16	18	19	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48	50	52	54
22tik 24ra	8	9	10	12	14	15	16	17	19	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48	50	52
25etik 27ra	7	8	10	11	12	13	14	16	18	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48	50
28tik 30era	7	8	9	10	11	12	13	15	16	18	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48
31tik 33ra	6	7	8	9	10	11	12	14	15	16	17	19	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44
34tik 36ra	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	18	20	21	23	24	26	27	29	30	32	33	35	36	38
37tik 39ra	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29
40tik 42ra	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
43tik 45era	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27
46tik 48ra	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26
49tik 51ra	1	2	3	4		5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
52tik 54ra	1	2	3		4	5		6		7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22
55etik 59ra	1		2		3		4		5		6		7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19
60tik 64ra	1		2		3		4		5		6		7		8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18

TAULAN ADIERAZTEN DA ZENBAT ALDIZ FLEXIONATU BEHAR DIREN BESOAK

**50 METRO BULTZADAREKIN. TAULA**

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
18tik 21era	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>6</sup>	7 <sup>5</sup>	7 <sup>3</sup>	7 <sup>1</sup>	7 <sup>0</sup>	6 <sup>9</sup>	6 <sup>8</sup>	6 <sup>7</sup>	6 <sup>6</sup>	6 <sup>5</sup>	6 <sup>4</sup>	6 <sup>3</sup>	6 <sup>2</sup>	6 <sup>1</sup>	6 <sup>0</sup>
22tik 24ra	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>6</sup>	7 <sup>5</sup>	7 <sup>3</sup>	7 <sup>1</sup>	7 <sup>0</sup>	6 <sup>9</sup>	6 <sup>8</sup>	6 <sup>7</sup>	6 <sup>6</sup>	6 <sup>5</sup>	6 <sup>4</sup>	6 <sup>3</sup>	6 <sup>2</sup>	6 <sup>1</sup>
25etik 27ra	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>6</sup>	7 <sup>5</sup>	7 <sup>3</sup>	7 <sup>1</sup>	7 <sup>0</sup>	6 <sup>9</sup>	6 <sup>8</sup>	6 <sup>7</sup>	6 <sup>6</sup>	6 <sup>5</sup>	6 <sup>4</sup>	6 <sup>3</sup>	6 <sup>2</sup>
28tik 30era	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>6</sup>	7 <sup>5</sup>	7 <sup>3</sup>	7 <sup>1</sup>	7 <sup>0</sup>	6 <sup>9</sup>	6 <sup>8</sup>	6 <sup>7</sup>	6 <sup>6</sup>	6 <sup>5</sup>	6 <sup>4</sup>	6 <sup>3</sup>
31tik 33ra	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>6</sup>	7 <sup>5</sup>	7 <sup>3</sup>	7 <sup>1</sup>	7 <sup>0</sup>	6 <sup>9</sup>	6 <sup>8</sup>	6 <sup>7</sup>	6 <sup>6</sup>	6 <sup>5</sup>	6 <sup>4</sup>
34tik 36ra	9 <sup>8</sup>	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>6</sup>	7 <sup>5</sup>	7 <sup>3</sup>	7 <sup>1</sup>	7 <sup>0</sup>	6 <sup>9</sup>	6 <sup>8</sup>	6 <sup>7</sup>	6 <sup>6</sup>	6 <sup>5</sup>
37tik 39ra	9 <sup>9</sup>	9 <sup>8</sup>	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>7</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>5</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>3</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>1</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>9</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>7</sup>	7 <sup>6</sup>	7 <sup>5</sup>	7 <sup>4</sup>
40tik 42ra	10 <sup>1</sup>	10 <sup>0</sup>	9 <sup>9</sup>	9 <sup>8</sup>	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>7</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>5</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>3</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>1</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>9</sup>	7 <sup>8</sup>	7 <sup>7</sup>	7 <sup>6</sup>
43tik 45era	10 <sup>4</sup>	10 <sup>3</sup>	10 <sup>2</sup>	10 <sup>1</sup>	10 <sup>0</sup>	9 <sup>9</sup>	9 <sup>8</sup>	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>7</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>5</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>3</sup>	8 <sup>2</sup>	8 <sup>1</sup>	8 <sup>0</sup>	7 <sup>9</sup>
46tik 48ra	10 <sup>8</sup>	10 <sup>7</sup>	10 <sup>6</sup>	10 <sup>5</sup>	10 <sup>4</sup>	10 <sup>3</sup>	10 <sup>2</sup>	10 <sup>1</sup>	10 <sup>0</sup>	9 <sup>9</sup>	9 <sup>8</sup>	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>	8 <sup>7</sup>	8 <sup>6</sup>	8 <sup>5</sup>	8 <sup>4</sup>	8 <sup>3</sup>
49tik 51ra	11 <sup>3</sup>	11 <sup>2</sup>	11 <sup>1</sup>	11 <sup>0</sup>	10 <sup>9</sup>	10 <sup>8</sup>	10 <sup>7</sup>	10 <sup>6</sup>	10 <sup>5</sup>	10 <sup>4</sup>	10 <sup>3</sup>	10 <sup>2</sup>	10 <sup>1</sup>	10 <sup>0</sup>	9 <sup>9</sup>	9 <sup>8</sup>	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>	9 <sup>3</sup>	9 <sup>2</sup>	9 <sup>1</sup>	9 <sup>0</sup>	8 <sup>8</sup>
52tik 54ra	11 <sup>8</sup>	11 <sup>7</sup>	11 <sup>6</sup>	11 <sup>5</sup>	11 <sup>4</sup>	11 <sup>3</sup>	11 <sup>2</sup>	11 <sup>1</sup>	11 <sup>0</sup>	10 <sup>9</sup>	10 <sup>8</sup>	10 <sup>7</sup>	10 <sup>6</sup>	10 <sup>5</sup>	10 <sup>4</sup>	10 <sup>3</sup>	10 <sup>2</sup>	10 <sup>1</sup>	10 <sup>0</sup>	9 <sup>9</sup>	9 <sup>8</sup>	9 <sup>7</sup>	9 <sup>6</sup>	9 <sup>5</sup>	9 <sup>4</sup>
55etik 59ra	12 <sup>5</sup>	12 <sup>4</sup>	12 <sup>3</sup>	12 <sup>2</sup>	12 <sup>1</sup>	12 <sup>0</sup>	11 <sup>9</sup>	11 <sup>8</sup>	11 <sup>7</sup>	11 <sup>6</sup>	11 <sup>5</sup>	11 <sup>4</sup>	11 <sup>3</sup>	11 <sup>2</sup>	11 <sup>1</sup>	11 <sup>0</sup>	10 <sup>9</sup>	10 <sup>8</sup>	10 <sup>7</sup>	10 <sup>6</sup>	10 <sup>5</sup>	10 <sup>4</sup>	10 <sup>3</sup>	10 <sup>2</sup>	10 <sup>1</sup>
60tik 64ra	13 <sup>2</sup>	13 <sup>1</sup>	13 <sup>0</sup>	12 <sup>9</sup>	12 <sup>8</sup>	12 <sup>7</sup>	12 <sup>6</sup>	12 <sup>5</sup>	12 <sup>4</sup>	12 <sup>3</sup>	12 <sup>2</sup>	12 <sup>1</sup>	11 <sup>8</sup>	11 <sup>7</sup>	11 <sup>6</sup>	11 <sup>5</sup>	11 <sup>4</sup>	11 <sup>3</sup>	11 <sup>2</sup>	11 <sup>1</sup>	11 <sup>0</sup>	10 <sup>9</sup>	10 <sup>8</sup>	10 <sup>7</sup>	10 <sup>6</sup>

TAULAN SEGUNDOAK ETA HAMARREKOAK ADIERAZTEN DIRA

**3000 METRO. TAULA**

Adina/puntu	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
<b>18tik 21era</b>	16'40	16'20	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'	12'45	12'30	12'15	12'	11'45	11'30	11'15	11'	10'45	10'30	10'15
<b>22tik 24ra</b>	17'	16'40	16'20	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'	12'45	12'30	12'15	12'	11'45	11'30	11'15	11'	10'45	10'30
<b>25etik 27ra</b>	17'30	17'15	17'	16'40	16'20	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'	12'45	12'30	12'15	12'	11'45	11'30	11'15	11'
<b>28tik 30era</b>	17'45	17'30	17'15	17'	16'40	16'20	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'	12'45	12'30	12'15	12'	11'45	11'30	11'15
<b>31tik 33ra</b>	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'40	16'20	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'	12'45	12'30	12'15	12'	11'45	11'30
<b>34tik 36ra</b>	18'10	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'40	16'20	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'	12'45	12'30	12'15	12'	11'45
<b>37tik 39ra</b>	18'30	18'20	18'10	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'45	16'30	16'15	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'	12'45	12'30
<b>40tik 42ra</b>	18'50	18'40	18'30	18'20	18'10	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'45	16'30	16'15	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30	13'15	13'
<b>43tik 45era</b>	19'10	19'	18'50	18'40	18'30	18'20	18'10	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'45	16'30	16'15	16'	15'40	15'20	15'	14'45	14'30	14'15	14'	13'45	13'30
<b>46tik 48ra</b>	19'30	19'20	19'10	19'	18'50	18'40	18'30	18'20	18'10	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'45	16'30	16'15	16'	15'45	15'30	15'15	15'	14'45	14'30	14'15
<b>49tik 51ra</b>	20'30	20'20	20'10	20'	19'50	19'40	19'30	19'20	19'10	19'	18'50	18'40	18'30	18'15	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'45	16'30	16'15	16'	15'45	15'30
<b>52tik 54ra</b>	21'30	21'20	21'10	21'	20'50	20'40	20'30	20'20	20'10	20'	19'50	19'40	19'30	19'15	19'	18'45	18'30	18'15	18'	17'45	17'30	17'15	17'	16'45	16'30
<b>55etik 59ra</b>	22'30	22'20	22'10	22'	21'50	21'40	21'30	21'20	21'10	21'	20'50	20'40	20'30	20'15	20'	19'45	19'30	19'15	19'	18'45	18'30	18'15	18'	17'45	17'30
<b>60tik 64ra</b>	23'30	23'20	23'10	23'	22'50	22'40	22'30	22'20	22'10	22'	21'50	21'40	21'30	21'15	21'	20'45	20'30	20'15	20'	19'45	19'30	19'15	19'	18'45	18'30

TAULAN MINUTUAK ETA SEGUNDOAK ADIERAZTEN DIRA

**RUFFIERRIN TESTA. TAULA**

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
55etik 59ra	24	24	23	22	21	20	18	16	14	12	10	9	8	7	6	5	4	3	2,5	2	1,6	1,2	0,8	0,4	0
60tik 64ra	25	25	24	23	22	21	20	18	16	14	12	10	9	8	7	6	5	4	3	2,5	2	1,5	1	0,5	0

Pultsua hiru aldiz hartuko da:

**P<sub>1</sub>:** Pultsu-hartzea, proba egin aurreko unean.

**P<sub>2</sub>:** Pultsu-hartzea, proba amaitu bezain laster.

**P<sub>3</sub>:** Pultsu-hartzea, proba egin eta minutu batera.

**Ondoko formula aplikatuko da:**

$$\text{Indizea} = \frac{P_1 + P_2 + P_3 - 200}{10}$$

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio 2012ko azaroan onetsitako mozioa bete dezan; mozioan, bermatu egiten zen lesbianen eta emakume ezkongabeen lagundutako ugalketarako eskubidea.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko irailaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Osasun Batzordean 2012ko azaroan onetsitako mozioa bete dezan, zeinaren

bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen berma zezan emakumeek osatutako sexu bereko bikoteen eta emakume ezkongabeen eskubidea, lagundutako giza ugalketarakoa”

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Madrilen hautagaitza babesten baitu 2020ko Joko Olinpiarrek eta Paralinpiarrek antolatzeko.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko irailaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Madrilen hautagaitza babesten du 2020ko Joko Olinpiarrek eta Paralinpiarrek antolatzeko.

2.- Gonbit egiten die nafarrei bat egin dezaten, boluntario gisa, Madril hiri olinpikoaren proiektuarekin.

3.- Zuzi olinpiarra Nafarroatik igarotzea babesten du, Bartzelonako 1992ko Joku Olinpiarretan gertatu zen modu berean, baldin eta azkenean Madril hautatzen badute”

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroan mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuei buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio txostena, Nafarroan mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuei buruzkoa (2008-2012), hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiriari buruz.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Nafarroan mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuei buruzko fiskalizazio-txostena (2008-2012), Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (18. or.).
- II.** Mendekotasunaren eremuko egoitzako eta egunerko arretarako zerbitzuak Nafarroan (18. or.).
  - II.1.** Mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuen oinarriko arau-esparrua (18. or.).
  - II.2.** Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuen deskribapena (20. or.).
- III.** Helburua, norainokoa eta mugak (24. or.).
- IV.** Ondorioak eta aholkuak (25. or.).

**IV.1.** Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuen bilakaera (2008-2012) (25. or.).

**IV.2.** Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuetan egindako gastu publikoaren bilakaera (2008-2012) (26. or.).

**IV.3.** Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuak emateko kontratuen kudeaketaren azterketa (28. or.).

**IV.4.** Gastu publikoaren zenbatespena toki bakoitzeko, esparru publikoan (29. or.).

**V.** Nafarroako mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuen azterketa (30. or.).

**V.1.** Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuen bilakaera Nafarroan (2008-2012) (30. or.).

**V.2.** Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuetan egindako gastu publikoaren bilakaera (2008-2012) (32. or.).

**V.3.** Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuak emateko kontratuen kudeaketaren azterketa (34. or.).

**V.4.** Gastuaren zenbatespena toki bakoitzeko, eremu publikoan (40. or.).

**ERANSKINAK:**

- I.** eranskina. Gomendatutako gutxieneko baliabide maila eta maila gorena Concerdep programan (42. or.).
- II.** eranskina. 2012ko moduluak mendekotasunaren eremuan kontrataturiko adinekoentzako zentroetan (44. or.).
- III.** eranskina. 2012an indarrean zeuden ezgaitasunaren arloko kontratuen zerrenda (15 or.).
- IV.** eranskina. 2012an indarrean zeuden buru-eritasunaren arloko kontratuen zerrenda (46 or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak onartu zuen, bere ekime-  
nez, Nafarroan mendekotasunaren eremuan dau-  
den egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuei  
buruzko fiskalizazio txostena egitea, eta lan hori  
2012. urteko fiskalizazio programan sartu zuen.

Egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzutzat  
jo dira mendekotasunari buruzko Estatuko eta  
Foru Komunitateko arau aplikagarrietan, txosten  
honetako hurrengo atalean aipatuko diren horie-  
tan, hala ezarrita daudenak, alegia:

- Egoitzako arreta zerbitzuak: zentroetan edo,  
kasua bada, familietan ematen den zerbitzua (per-  
sonaren benetako egoitza bihurtzen dira), bai aldi  
baterako bai epe luzera, ostatua, mantenua eta  
habilitazio edo errehabilitazioko jardura espeziali-  
zatuak emateko, pertsona bakoitzaren ezaugarriak  
kontuan hartuta.

Egoitzak, etxebizitza funtzionalak, zaintzapeko  
etxebizitzak, etxebizitza gainbegiratuak, egoitza-  
etxea, larrialdietarako tokiak eta familiek atsedean  
hartzeko tokiak dira.

- Eguneko arreta zerbitzuak: egoitzetan edo  
jardura zentroetan (okupazionala, habilitaziokoa,  
errehabilitaziokoa eta esku-hartze berariazkoak  
ematekoa) ematen den zerbitzua, ordutegi jarraitu-  
an, egunaren zati handi batean baina egoitzan  
ingresatzea ekarri gabe.

Eguneko zentroak eta errehabilitazio psikosozial-  
aleko zentroak (EPSZ) multzo horretako zerbitzu-  
ak dira.

Gainera, mendekotasunari buruzko araudia  
onetsi baino lehenagoko 11 itunetan egoitzetako  
eta eguneko zentroetako tokiak kontratatzen ziren,  
eta araudi horrek indarra hartutakoan itun horiek  
indarrean iraun zuten.

Lana kontu-ikuskaritzako bi teknikariek eta  
kontu-ikuskatzaile batek egin zuten 2012ko azaro-  
tik 2013ko martxora bitartean, Ganberako zerbitzu  
juridikoen, informatikoen eta administratiboan  
laguntzarekin.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honetaz gaine-  
ra. Bigarren atalean deskribatzen dira mendekota-  
sunaren eremuan Nafarroan ematen diren egoitza-  
ko eta eguneko arreta zerbitzuak eta horien  
oinarrizko araudia; hirugarrenean txostenaren hel-  
buruak, norainokoa eta mugak aurkezten dira; lau-  
garrenean, berriz, ateratako ondorioak eta gomen-  
dioak azaltzen dira, eta bosgarrenean sakonago  
deskribatzen da egindako lana.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen  
diegu Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agen-

tziari (NPAA) eta Gizarte Politiketako Departamen-  
tuko Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendarit-  
za Nagusiko Plangintza, Kalitate eta Ikuskapen  
Zerbitzuari.

## II. MENDEKOTASUNAREN EREMUKO EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAK NAFARROAN

### II.1. MENDEKOTASUNAREN EREMUKO EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUEN OINARRIZKO ARAU-ESPARRUA

Estatuan 2006ko abenduaren 14an onetsi zen  
Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekota-  
sun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko  
39/2006 Legea (hemendik aurrera Mendekotasu-  
naren Legea). Lege horrek dio mendekotasun ego-  
eran dauden pertsonak eskubidea dutela lege  
beraren 15. artikuluan ezarritako prestazio eta zer-  
bitzuak baliatzeko, berdintasunez, bizi diren tokian  
bizi direla; eta mendekotasunaren eremuan hiru  
arlotan bereizten ditu: adinekoak, ezgaitasuna eta  
buru-eritasuna.

Lege horren 16. artikulua dioenez, prestazio  
eta zerbitzu horiek autonomia erkidegoetako gizar-  
te zerbitzuen sarean sartu behar dira, autonomia  
erkidegoek dituzten eskumenen esparruan. Hala,  
zentro publikoek, pertsonen autonomia sustatzeko  
eta mendekotasuna duten herritarrei arreta eskain-  
tzeko Estatuko erreferentzia-zerbotoek eta behar  
bezala egiaztatuta dauden zentro pribatu itunduek  
osatuko lukete zentroen sarea.

Bestalde, lege horrek prestazio eta zerbitzuak  
eskuratzeko prozedura ezartzen du. Mendekotasu-  
na duen pertsonak eskatuta hasten da prozedura.  
Administrazio publikoek zuzenean egiten dute  
balorazioa eta ezin dute lan hori entitate pribatue-  
kin itundu, kontratatu edo delegazioz haien esku  
utzi. Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari  
Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseilu-  
ak onetsitako irizpide eta prozedurei jarraitu behar  
diote.

Eskatzailearen mendekotasun egoera, lege  
horren arabera, dagokion graduan sailkatu behar  
da, pertsonaren autonomiari eta behar dituen  
zainketei erreparatuta, eta gradu bakoitzean bi  
maila daude. Hauek dira graduak:

- I. gradua edo mendekotasun arina: pertsonak  
laguntza behar izaten du, gutxienez ere egunean  
behin, eguneroko bizitzako oinarrizko jardura bat-  
zuk egiteko, edo bere autonomia pertsonalerako  
noizbehinkako laguntzaren beharra du.

- II. gradua edo mendekotasun larria: pertso-  
nak egunean bi edo hiru aldiz laguntza behar iza-

ten du eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko, edo laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalaren arloan.

- III. gradua edo mendekotasun handia: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko, egunean hainbat aldiz, eta etengabeko laguntza behar du autonomia pertsonalaren arloan.

Prestazioak eskuratzeko prozeduraren hasieran balorazioa egiten zaio mendekotasuna duela dioen pertsonari. Behin mendekotasun egoera aitortu zaionean, aitortutako graduaren edo mailaren arabera, banakako arreta programa (BAP) egiten zaio. Bertan zehazten dira eskatzailearentzat egokienak diren esku-hartzeak, jaso ditzakeen prestazioak eta horretarako behar diren baliabide ekonomikoak.

Eskatzaileari BAPa bidaltzen zaio, hark egokientzat jotzen duen prestazioa aukeratzen du, Administrazioari jakinarazten dio, eta Administrazioak kudeaketak egiten ditu aukeratutako prestazioa emateko.

BAPa egin ondoren balorazio ekonomikoa egiten da, prestazioaren erabiltzaileak Administrazioari zenbat ordaindu beharko dion zehaztu ahal izateko.

Estatuko legea argitaratu eta handik bost egunera Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea argitaratu zen. Lege horren xede nagusia da Nafarroako biztanleen gizarte ongizatea lortzea, gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubide unibertsala bermatuz, ematen diren zerbitzuen bidez pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi kalitatea bermatuko dituen sistema itxuratu.

Foru lege horretan ezarri zen gizarte zerbitzuen zorroa onetsiko zela, sistema publikoko prestazioak bilduko zituena. Zorroa 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, eta barnean hartzen ditu bai prestazio bermatuak (eskubide subjektibo gisa eska daitezkeenak) bai bermatu gabekoak (aurrekontuan baliabideak daudenean soilik eska daitezkeenak), honako arlo hauetan:

Arloa	Prestazio bermatuen kop.	Bermatu gabeko prestazioen kop.
Oinarrizko arreta	10	--
Mendekotasuna dutenentzako arreta	25	--
Adinekoentzako arreta	5	17
Ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta	8	14
Buru-eritasuna duten pertsonentzako arreta	9	8
Gizartean bazterturik edo horrela geratzeko arriskuan	11	6
Adingabeentzako arreta	15	5
Genero indarkeriaren biktimentzako arreta	6	--

Ikus daitekeenez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak mendekotasuna baino eremu zabala goa hartzen du, mendekotasunaren arloan ez ezik beste batzuetan ere ezarri baitira herritarrentzako prestazioak, nahiz eta Estatuan ezgaitasuna eta buru-osasuna ere mendekotasunaren eremuan sartuta dauden. Konparazio horretan kontuan hartu behar da, halaber, goiko taulako prestazioetako batzuk Estatuko Mendekotasunaren Legean jasotako prestazio orokorren garapenaren emaitza direla.

Aurrean azaldutako arauetaz gainera, beste hauek ere zuzeneko lotura dute mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arreta zerbitzuekin:

- 209/1991 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena.

- 17/2000 Foru Legea, abenduaren 29koa, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena.

- 336/2009 Foru Agindua, azaroaren 12koa, mendekotasuna duten adinekoei, ezgaitasuna duten pertsonari eta buru-eritasuna duten pertsonari laguntzeko aldi baterako egonaldi zerbitzuez nola baliatu arautzen duena Nafarroako Foru Komunitatean.

- 3/2010 Foru Agindua, urtarrilaren 14koa, familia egoera baloratzeko prozedura eta baremoa

arautzen dituen, adinekoak, ezgaitasuna duten pertsonak, adimen-eritasuna dutenak eta gizartean bazterturik edo horrela geratzeko arriskuan dauden pertsonak artatzera zuzendutako egoitzetako plazak eskuratze aldera.

- 339/2010 Foru Agindua, azaroaren 8koa, Desgaitasuna duten Pertsonen Arreta Emateko Plan Integrala onesten duena 2010etik 2013ra bitarteko urteetarako.

- 1/2011 Foru Legea, otsailaren 15ekoa, mendetasun egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak eta organoa osatuko dituzten langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituena.

- 1/2011 Foru Lege Dekretua, urriaren 6koa, defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituena eta 69/2008 Foru Dekretua aldatzen duena, Nafarroako kontsumoko prezioen indizearen araberrako urteroko eguneratzea eta Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako prestazio ekonomikoak indargabetuz eta mendekotasunari arreta emateko arloan Gizarte Zerbitzuen Zorro horretan sartutako prestazioak beren artean bateraezinak izanen direla deklaratu.

- Erabakia, Nafarroako Mendekotasunerako Agentziako Gobernu Kontseiluak 2011ko azaroaren 24an hartua, erakunde autonomo horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratzen dituena.

- 174/2012 Foru Agindua, apirilaren 19koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, "Eguneko Zentroaren Zerbitzua Adinekoentzat" eta "Adinekoei Arreta Emateko Landa Zerbitzua" sailkatzen dituena eta zerbitzu berritzaletan jotzen dituena, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuaren eranskinean ezarri zirenetako bakar batekin ere ezin baitira parekatu.

- 2/2012 Legea, ekainaren 29koa, Estatuaren 2012ko Aurrekontu Orokorreari buruzkoa, berekin dakarrena Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotako zenbait manuren aplikazioa etetea.

- 20/2012 Errege Lege Dekretua, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

- 62/2013 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, mendekotasuna dutenentzako laguntzaren arloko hainbat prestazio eta zerbitzuen arteko bateragarritasun araubidea ezartzen duena eta mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoak arautzen dituena.

## II.2. EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Mendekotasunaren balorazioan, eskatzaileak eguneroko laguntza eta artapenen beharra duela zehazten da (bai adinekoen arloan bai ezgaitasuna edo buru-eritasuna duten pertsonen arloan), eta BAPean, berriz, laguntza hori bi modu ezberdinetan jasotzeko aukera eskaintzen da:

- Etxean, kontrataturiko zaintzaile baten edo senitartekoren baten ardurapean, Gizarte Politiketako kontseilariak emandako urtarrilaren 18ko 62/2013 Foru Aginduari jarraituz, horren bidez mendekotasuna dutenentzako laguntzaren arloko hainbat prestazio eta zerbitzuen arteko bateragarritasun araubidea ezartzen baita eta mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoak arautzen.

- Baliabide berekiekin edo kontrataturiko besteren baliabideekin kudeatzen den zentro publiko batean, edo ituna duen zentro pribatu batean, prestazio hauek jasotzeko: eguneko zentroa, eguneko egonaldia, gaueko egonaldia, aldi baterako ingresoak edo egoitzako arreta.

Prestazioaren onuradunak zentro publiko edo itundu batean arreta jasotzea aukeratu, eta une horretan tokirik ez badago, toki pribatu bat har dezake, zentro publiko edo itundu batean tokia eskaintzen dioten arte. Toki pribatu horri dagokion diru kopurua ordaindu ahal izateko (itundutako edo kontrataturiko tokiaren tarifa baino handiagoa izan edo ez), pertsonak ekainaren 1eko 210/2009 Foru Aginduan araututa dagoen laguntza jasotzen du, zerbitzuari lotutako prestazioa deritzona (ZLP).

Hona hemen zenbat pertsonak izan duten zerbitzuari lotutako prestazioa eta zenbatek familia inguruneko zaintza 2008-2012 bitarteko urteetan:

	2008	2009	2010	2011	2012	Aldaketa (%) 2012/2008
Zerbitzuari loturiko prestazioa (ZLP)	974	1.498	1.563	1.505	1.522	56
Familia ingurunekeo laguntzak eta gutxieneoak	8.071	7.939	6.962	7.200	7.336	-9

Erabiltzaile bakoitzari esleitutako ZLParen zenbatekoa eguneratu egiten da arauak onetsi ahala. Gehieneko eta gutxieneo zenbateoak ezartzen

dira. 2012aren hasieran zenbateko horiek 82/2011 Foru Aginduan ezarritakoak ziren:

	Egoitzetako tokiak (euroak hilean)		Eguneko zentroa (euroak hilean)	
	Gehienez	Gutxienez	Gehienez	Gutxienez
Mendekotasun handia, II. maila	1.744	334	898	334
Mendekotasun handia, I. maila	1.744	250	898	250
Mendekotasun larria, II. maila	1.744	185	898	185
Mendekotasun larria, I. maila	835	160	898	160
Mendekotasun arina, II. maila	807	120	300	120

2012ko uztailan onetsi zen 20/2012 Errege Dekretu Legea, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurri buruzkoa. Mendekotasunaren Legea aldatu zuen, mendekotasun mailaren sailkapenean egitura berria ezarriz (graduak bakarrik), Estatuak gutxieneo babes maila finantzatzeko egiten duen ekar-

pena murriztuz eta prestazioak ere murriztuz. Ondorioz zenbateko horiek jaitzi egin dira. Hala, 732/2012 Foru Agindua onetsi da, 2012ko uztailetik aurrera aitortutako mendekotasun egoerei aplikagarria, ondorioak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen dituen. Zenbateko hauek finkatu ditu:

	Egoitzetako tokiak (euroak hilean)		Eguneko zentroak (euroak hilean)	
	Gehienez	Gutxienez	Gehienez	Gutxienez
Mendekotasun handia	1.482	250	763	250
Mendekotasun larria	1.053	161	763	161
Mendekotasun arina	807	--	--	--

Erabiltzaile bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, erabiltzailearen ekarpenaren eta jasoko duen zerbitzuaren prezioaren arteko kenketa egiten da. Erabiltzailearen ekarpena haren ahalmen ekonomikoaren arabera kalkulatu da.

2012ko abenduaren 31n honela banatzen ziren ZLPak foru araudian zehazturiko gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeen arabera, Nafarroaz kanpokoak ere kontuan izanik:

	1. eskualdea (%)	2. eskualdea (%)	3. eskualdea (%)	4. eskualdea (%)	5. eskualdea (%)	6. eskualdea (%)	Nafarroatik kanpo (%)	Guztira (%)
Adinekoak	6,7	10,8	42,3	11,4	12,5	16,3	--	100
Ezgaitasuna	23	--	47,8	2,7	0,9	4,4	21,2	100
Buru-eritasuna	23,7	--	45,8	3,4	--	--	27,1	100

(1) 1. eskualdea: Ipar-mendebaldeko barrutia; 2. eskualdea: Ipar-ekialdeko barrutia; 3. eskualdea: Iruña eta Iruñerriko barrutia; 4. eskualdea: Iizarrako barrutia; 5. eskualdea: Tafallako barrutia, eta 6. eskualdea: Tuterako barrutia.

Ikus daitekeenez, adineko erabiltzaileen kasuan inor ez da Nafarroatik kanpora lekualdatu; ezgaitasunaren eta buru-gaixotasunaren arloetan, berriz, hurrenez hurren onuradunen ehuneko 21 eta ehuneko 27 Nafarroatik kanpora lekualdatuta daude. Gainera, ZLP gehienak Iruña eta Iruñerriko barrutikoak direla ikus daiteke.

Mendekotasuna duen pertsona etxean atxikitzeko laguntzen kasuan ere antzera gertatzen da. Baziren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak gorago aipatutako errege dekretu-legea onetsi baino lehen, eta aldatu egin dira horren ondoren. Honako hauek dira:

	20/2012 EDL aurreko zenbatekoak (euroak hilean)		20/2012 EDL ondoko zenbatekoak (euroak hilean)	
	Gehienez	Gutxienez	Gehienez	Gutxienez
Mendekotasun handia, II. maila	543	311	543	311
Mendekotasun handia, I. maila	543	249	543	249
Mendekotasun handia	-	-	543	249
Mendekotasun larria, II. maila	407	202	407	202
Mendekotasun larria, I. maila	407	180	407	180
Mendekotasun larria	-	-	407	180
Mendekotasun arina, II. maila	180	60	180	60

Aurrekoaz gainera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen esparruan, txosten honetako sarrean azaldu den bezala, adinekoen arloko 11 itun mantendu dira zentro pribatuekin; indarrean jarraitzen zuten Mendekotasunaren Legea onetsi aurretik eta ondoren, beren baldintza eta finantzabide berariazkoekin.

Laburbilduta, 2012ko abenduaren 31n hauexek ziren Nafarroan egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuetako kontratuak, zentro berekiak eta toki-eko kopurua:

	Zentro berekiak % 100	Besteren zentroekiko kontratuen kopurua	Zentro berekietako arretarako kontratu kop.	Tokien kopurua		Guztira	
				% 100	Itunduak		
Adinekoak: Mendekotasunaren Legearen ondoko itunak	2	41	--	Egoitza: 261 Eguneko zentroa: 15	Egoitza: 1.170	Egoitza: 1.989 Eguneko zentroa: 110	
Adinekoak: Mendekotasunaren Legearen aurreko itunak	--	11	--		Egoitza: 556 Eguneko zentroa: 95		
Ezgaitasuna	2	6	6	Egoitza: 80 Etxebizitza funtzionala: 11	Egoitza: 330 Eguneko zentroa: 88 Etxebizitza funtzionala: 44 Larrialdietarako tokia: 3	Egoitza: 70 Eguneko zentroa: 141 Etxebizitza funtzionala: 43 Larrialdietarako tokia: 2 Familien atsedena: 7	Egoitza: 480 Eguneko zentroa: 229 Etxebizitza funtzionala: 98 Larriald. tokia: 5 Familien atsedena: 7
Buru-gaixotasuna	--	7	1		Egoitza: 25 Eguneko zentroa: 30 EPSZ: 35 Larrialdietarako tokia: 1	Egoitza: 82 Eguneko zentroa: 105 EPSZ: 130 Zaintzapeko etxebizitza: 18	Egoitza: 107 Eguneko zentroa: 135 EPSZ: 165 Zaintzapeko etxebizitza: 18 Larriald. tokia: 1

Hona hemen zenbateko gastua (eurotan) ekarri dioten Nafarroako Gobernuari azken bost urteetan egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuen

kudeaketa berekiak eta kontratatuak, ZLPek eta etxeko zaintzarako laguntzek:

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	12/11 aldea (%)
Adinekoen zentroen kudeaketa <sup>(1)</sup>	20.119.053	23.779.648	37.555.101	40.467.203	39.677.087	97	-2
Ezgaitasuna dutenen zentroen kudeaketa	23.372.783	25.264.589	25.884.250	27.371.912	27.797.441	19	2
Buru-gaixoen zentroen kudeaketa	3.385.078	3.581.760	3.516.077	3.734.047	4.564.410	35	22
Zentro berekiak (1)	15.952.453	15.248.925	14.798.328	14.065.416	13.087.405	-18	-7
ZLPak	6.787.057	12.576.803	9.991.486	11.001.695	11.101.009	64	1
Etxeko zaintzarako laguntzak eta gutxienekoak	34.832.713	35.436.704	30.540.436	31.389.885	22.810.127	-35	-27
<b>Guztira</b>	<b>104.449.137</b>	<b>115.888.429</b>	<b>122.286.678</b>	<b>128.030.158</b>	<b>119.037.479</b>	<b>14</b>	<b>-7</b>

(1) Barruan hartzen du mendekotasuna duen pertsonatza baloratu ez diren baina egoitza-baliabiderako eskubidea duten lehenagoko erabiltzaileen mantenturako gastua.

Taulan ageri denez, azken bost urteetan hone-lako zerbitzuetako gastu osoa ehuneko 15 igo da, baina 2011tik 2012rako aldeak kontrako zeinua du, ehuneko zazpi egin baitu behera.

Gastuaren portaera aldatu egiten da zentro motaren arabera. Hala, zentro berekien eta etxeko zaintzarako laguntzen kasuetan aldaketa portzentajeak negatiboak dira, hurrenez hurren ehuneko 18ko eta 35eko jaitsierak izan baitira. Gastua nabarmen handitu da gainerako kasuetan, esate baterako adinekoen eta buru-gaixoen zentroen kudeaketan edo ZLPetan.

Gastu horiei aurre egiteko, Mendekotasunaren Legean ezarrita dago finantzaketak nahikoa izan behar duela administrazio publiko eskudunei dagozkien betebeharrak beteko direla bermatzeko, eta horiek urtero zehaztuko direla aurrekontuetan. Iturri hauek bereizten dira:

- Gutxieneko babes maila (Estatuaren kargura)

Maila honetako baliabide ekonomikoak urtero finkatuko dira Aurrekontuei buruzko Legean, eta autonomia erkidegoei haiek ordaintzeko modua ere bai. Estatuko katalogoan zehazturiko gizarte zerbitzuak estaltzen ditu. Legean jasotako prestazioetarako eskubidea mailaz maila erabiliko da, azken xedapenetako lehenengoan ezarri zen eta aurrean aipatutako araudiari jarraituz aldatu zen egutegiaren arabera.

- Hitzartutako maila (Estatuak eta autonomia erkidegoek batera ordaintzea)

Ezarrita dago hitzarmenak eginen direla aurreko babesaren gutxieneko maila igotzeko, eta errege-dekretu bidez irizpideak onetsiko direla Estatu-

ko katalogoan aurreikusita dauden zerbitzuetako bakoitzaren babesaren intentsitatea eta zerbitzuon bateragarritasuna zehazteko.

Hitzarmenak urte baterako edo urte anitzetarako eginen dira, eta banaketa irizpideak jasoko dituzte, kontuan izanik mendekotasuna duen biztanleria, sakabanatze geografikoa, intsularitatea, itzulitako emigratzaileak eta beste faktore batzuk. Alderdiek berrikusi ahal izanen dituzte.

Urte bakoitzean autonomia erkidegoak egin beharreko ekarpena Estatuarena adinakoa izanen da gutxienez, bai gutxieneko babes mailan bai hitzartutako mailan. Nafarroako kasuan, legeak aurreikusten zuen Nafarroan Estatuari dagozkion zerbitzu eta prestazioen finantzaketa kontuan hartu behar zela Nafarroaren ekarpenaren kalkuluan, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat etorriz.

Horrenbestez, Nafarroak Estuari egin beharreko ekarpena murriztu egin behar da, Estatuak araudiak Foru Komunitateko onuradun bakoitzari bere mendekotasun mailaren arabera bermatzen eta ezartzen dion gutxieneko mailari dagokion zenbatekoa kenduz.

- Autonomia erkidegoko maila (autonomia erkidegoaren kargura)

Autonomia erkidegoek zilegi dute Estatuak finkatutakoaz gainera babes maila gehiago definitzea beren aurrekontuen kargura.

- Erabiltzailearen koordainketa

Mendekotasunaren Legeak ezartzen du onuradunaren gaitasun ekonomikoa (errentaren eta ondarearen arabera zehaztua) kontuan hartuko dela onuradunak zerbitzuen kostuaren zer zati

ordainduko duen eta prestazio ekonomikoen zerbatekoa zehazteko.

Azkenik, txosten hau egin den garaian, NPAAK emandako informazioaren arabera, hauxe da zerbitzuon eskaria:

- Adinekoak: sei pertsona itxarote-zerrendan egoitza tokien zain.

- Ezgaitasuna: 38 pertsona itxarote zerrendan zaintzapeko etxebizitza edo etxebizitza funtzionaltoko tokien zain, 21 pertsona egoitza tokien zain, eta bi pertsona gehiago eguneko arretarako.

- Buru-eritasuna: 37 pertsona itxarote-zerrendan zaintzapeko etxebizitzetarako, 30 pertsona egoitza-etxeetako tokien zain, 23 pertsona egoitzako arretarako tokien zain, 21 pertsona EPSZ batean tokia izateko zain, eta bi pertsona etxebizitza gainbegiratuetakoko tokien zain.

Aurrekoaz gainera kontuan hartu behar litzateke itundutako toki publikoen zain daudenei ematen zaizkiela ZLPak; beraz, horien erabiltzaileak ere zerbitzu-eskatzailatzat jo litezke, nahiz eta dagokien prestazioa jasotzen ari diren.

### III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten hau eginez, honako helburuak lortu nahi dira:

- Mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzu kontratatuek eta berekiek 2008-2012 bitartean izan duten bilakaera aztertzea.

- Mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuak emateko kontratuetan eta baliabide berekietan 2008tik 2012ra bitartean egin den gastu publikoa aztertzea.

- Mendekotasunaren eremuan horrelako zerbitzuak emateko kontratuetara bideratu diren funts publikoen kudeaketa berrikustea.

- Zuzenean kudeatzen diren zentro berekietako toki bakoitzeko gastua zenbatestea, eta antzeko prestazioak dituzten zentro pribatuei ordaintzen ari zaizkien tarifekin erkatzea.

Honako informazio hau erabili da lana egiteko:

- Mendekotasunari buruzko Estatuko eta Foru Komunitateko arauak.

- Mendekotasunaren eremuan egoitzako zerbitzuak emateko 2008-2012 bitartean egindako gastu publikoa.

- Aldi horretan zerbitzuok emateko izan diren baliabideak.

- Egoitzako zerbitzuez bestelako prestazioak deskribatzeko, kasuan kasuko epeko gastu publikoaren bilakaera eta prestazio horien onuradunen kopuruaren estatistika erabili dira.

- Itun eta kontratuetako funts publikoen kudeaketaren azterketan haien lagin bat aukeratu da, honela osatua:

a) Adinekoen arretarako sei kontratu, horietako bost mendekotasunaren esparruan eginak eta beste bat lehengo araudiaren babesean; horrelako zentroen kudeaketan egindako gastu osoaren ehuneko 18 hartzen dute.

b) Ezgaitasunaren arloko bost kontratu. Horietako bi zentro pribatuekin, eta beste hiru zentro berekietan zerbitzuak emateko egin dira. Horrelako zentroen kudeaketarako gastu osoaren ehuneko 61 hartzen dute.

c) Buru-eritasunaren arloko lau kontratu. Horietako hiru zentro pribatuekin egin dira, eta bestea zentro bereki batean zerbitzuak emateko. Kontratu horiek horrelako zentroen kudeaketarako gastu osoaren ehuneko 64 hartzen dute.

Berrikusitako gastuaren portzentajea txikiagoa da adinekoen eremuan, kontratu gehiago daudelako, denak baldintza beretan eginak, txosten honetako V.3.1 atalean azaltzen den bezala, eta, beraz, ez delako egokitzat jo kontratu kopuru handiagoa berrikustea.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako bereziki egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Lan hau egitean zenbait muga izan dira, lanari eragin diotenak:

- Aztertutako aldiari NPAAn dagokion oroitadazkirik ez izateak zaildu egin du datu sendorik lortzea baliabide itunduen bilakaerari, horien onuradunei eta abarri buruz. Hala ere, txosten hau egiterakoan NPAAn eskuragarri zeuden datuak erabili dira.

- Zuzenean kudeatzen diren zentro berekietan toki-motaren edo prestazioaren arabera zenbatespena ahalbidetzen duen kostu sistemarik ez izateak zaildu egin du datu hori lortzea. Toki bakoitzeko gutxi gorabeherako aurrekontu-gastua kalkulatu ahal izan da ezgaitasuna dutenentzako zentroetan, homogeenak baitira prestazioei eta mendekotasun graduari dagokienez; ez dira zehar-



kako kostuak gehitu, baina horiek ez lukete nabarmen aldaraziko lortutako zenbatekoa. Adinekoentzako zentroen kasuan ez da toki bakoitzeko gastua zenbatetsi, zentro berean hainbat prestazio eta hainbat mendekotasun gradu biltzen direlako, baliabide ezberdinak kontsumitzen dituztenak.

- Aurreko muga horren ondorioz ezin izan dira erkatu toki bakoitzeko eremu publikoko gastua eta eremu pribatukoa. Adinekoentzako zentro berekien kasuan hori ezinezkoa izan da ez delako toki bakoitzeko gastua zenbatetsi, eta ezgaitasuna dutenentzako zentroetan, berriz, arrazoi nagusia

izan da erabiltzaileen ezaugarriak askotarikoak direla, zentro pribatuen aldean, eta zentro pribatuetan prestazio ezberdinak daudela.

Muga horiek gorabehera, nahi ziren helburuak lortu ahal izan dira, aurreko lerrokadan aipatutakoa izan ezik.

#### IV. ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Atal honetan, egindako lanetik atera ditugun ondorio eta aholku nagusiak bildu ditugu:

##### IV.1.1. Adinekoen arloa

	2008	2012	2012/2008 aldea (%)
Egoitzetako tokiak	1.233	1.989	61
Eguneko zentroetako tokiak	106	110	4

Goian ageri denez, azterturiko aldian, egoitzetako tokien kopuruak ehuneko 61 egin du gora. Kudeaketa motari erreparatuta tokiek bilakaera ezberdinak izan dituzte, V.1 atalean azaltzen denez. Hala, mendekotasunaren eremuan kontrataturikoak 2009an 822 izatetik 2012an 1.170 izatera igaro dira, hots, ehuneko 43 hazi dira. Mendekotasunaren Legearen aurretik kontrataturik zeuden tokiek portzentaje berean egin dute behera, eta berekiak 263 izan dira azterturiko aldi osoan. Kontuan izan behar da Mendekotasunaren Legearen aurretik kontrataturiko tokietako batzuk eremu honen barruan itundu zirela gero.

Eguneko zentroetako tokiak ehuneko lau hazi dira. Ez dago Mendekotasunaren Legearen babesean kontrataturiko tokirik, V.1 atalak erakusten duenez. Arau hori baino lehenagotik bazirenak ehuneko lau igo dira (91tik 95era), eta berekiak 15 izan dira aldi osoan.

Arlo honetako ZLPak, 2012ko abenduaren 31n, 775 ziren egoitzako arretarako eta 45 eguneko arretarako, eta egoitzetako sei tokiren eskaria zegoen orduan.

##### IV.1.2. Ezgaitasunaren arloa

	2008	2012	2012/2008 aldea (%)
Egoitzetako tokiak	480	480	--
Eguneko zentroetako tokiak	218	229	8
Etxebizitza funtzionaletako tokiak	55	98	78

Egoitzetako tokiak kasu honetan 480 izan dira azterturiko urte guztietan, eta ehuneko 69 Nafarroako Gobernuaren zentroetan eskaini dira besteren baliabideak erabiliz.

Eguneko zentroetako tokiak ehuneko zortzi igo dira azterturiko aldian, 218tik 229ra hain zuzen,

zentro pribatuetako toki kontratatutak gehitu izanaren ondorioz.

Etxebizitza funtzionaletako tokiak hazi dira gehien azterturiko aldian: ehuneko 78 egin dute gora, 55etik 98ra, Administrazioetik kanpoko zentroekiko kontratazioa areagotu egin delako.

Esparru horretan, 2012ko abenduaren 31n ZLPak 113 ziren, egoitzako arretari zegozkionak, eta orduko eskaria hauxe zen: egoitzako arretarako 65 toki eta eguneko arretarako toki bat. Lehenbiziko 113 prestazioetatik 53 egoitzetarako ziren

eta 11 zaintzapeko etxebizitzetarako; guztiak Sailaren diru-laguntzen bidez finantzatzen ziren lehena-go, eta NPAAk erabaki zuen banakako prestazio ekonomikoak ematea egoiliarrei; beraz, ez zen ohiko prozedura erabili prestazio horiek emateko.

#### IV.1.3. Buru-eritasunaren arloa

	2008	2012	2012/2008 aldea (%)
Egoitzetako tokiak	82	107	30
Eguneko zentroetako tokiak	105	135	29
EPSZetako tokiak	130	165	27
Zaintzapeko etxebizitzetako tokiak	18	18	--

Egoitzetako tokiek ehuneko 30 egin dute gora, 82tik 107ra, besteren baliabideekin kudeatutako zentro bereki bat zabaldu delako 2012an.

Eguneko zentroetako tokiek ehuneko 29 egin dute gora, 105etik 135era, arrazoi beragatik.

EPSZetako tokiek ere gora egin dute, ehuneko 27, 130etik 165era, arrazoi bera dela medio.

Zaintzapeko etxebizitzetako tokiak 18 izan dira aztertutako aldian zehar.

Kasu honetan egoitzako arretarako ZLPak 59 ziren 2012ko abenduaren 31n, eta orduko eskaria hauxe zen: egoitzako arretarako 94 toki eta EPSZetako arretarako 20 toki.

Joera orokorra izan da, laburbilduz, zerbitzu gehienetan tokien kopurua igotzekoa eremu pribatuko kontratazioaren gehikuntzaren ondorioz, buru-eritasunen kasuan izan ezik, hor Félix Garri-do zentro berekia irekitzeak eragin baitu iguera.

#### IV.2. EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETA-RAKO ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (2008-2012)

Aurreko ataleko tokien kopuruaren bilakaeran gertatu diren aldaketek baldintzaturik, mendekotasunaren arloan gastuak honelako bilakaera izan du:

##### IV.2.1. Adinekoen arloa

	2008 (eurotan)	2012 (eurotan)	12/08 aldea (%)
Adinekoen zentroen kudeaketa <sup>(1)</sup>	20.119.053	39.677.087	97
Zentro berekiak <sup>(1)</sup>	9.551.080	7.822.763	-18
<b>Guztira</b>	<b>29.670.133</b>	<b>47.499.850</b>	<b>60</b>

(1) Mendekotasunaren Legea onetsi aurretik ezarritako itunen gastua ere barne.

Arlo honetako gastu osoa ehuneko 60 hazi da aztertutako aldian. Haren osagaiei erreparatuta, aztertutako aldian erakunde pribatuekin zentro berekiak nahiz besterenak kudeatzeko egindako kontratuen gastuak ehuneko 97 egin du gora, 2012an ia 40 milioi eurora iristeraino (Mendekotasunaren Legea onetsi aurretik egindako itunen gastua ere kontuan hartuta); Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen zentro berekietarako funts publikoak, berriz, ehuneko 18 murriztu dira: 2012an 7,8 milioi euro izan dira.

**IV.2.2. Ezgaitasunaren arloa**

	2008 (eurotan)	2012 (eurotan)	12/08 aldea (%)
Ezgaitasuna dutenen zentroen kudeaketa	23.372.783	27.797.441	19
Zentro berekiak	6.401.373	5.264.642	-18
<b>Guztira</b>	<b>29.774.156</b>	<b>33.062.083</b>	<b>11</b>

Ezgaitasunaren arloan gastua ehuneko 11 handitu da 2012an, 2008koaren aldean. Haren osagaiak erakusten dutenez, zentro berekiak eta besterik kudeatzeko kontratuetako gastua 28 milioi

eurokoa izan da 2012an, hau da, 2008koa baino ehuneko 21 handiagoa. Zentro berekietako gastuari dagokionez, 2012an 5,3 milioi eurokoa izan da; ehuneko 18 egin du behera 2008koaren aldean.

**IV.2.3. Buru-eritasunaren arloa**

	2008 (eurotan)	2012 (eurotan)	12/08 aldea (%)
Buru-gaixoen zentroen kudeaketa	3.385.078	4.564.410	35

Arlo honetan, egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuetan diharduten besteren baliabideekin zentro pribatuak eta berekiak kudeatzeko gastua 2012an 4,6 milioi eurokoa izan da, 2008an baino ehuneko 35 handiagoa. Kasu honetan ez dago Nafarroako Gobernuaren zentrorik baliabide berekiekin kudeatzen denik.

Ikus daiteke, azken batean, mendekotasunaren arretarako gastu publikoa 2008tik 2012ra bitartean ehuneko 35 igo dela, 2012an 85 milioi eurora iristearaino, eta aztertutako arloaren arabera gehikuntzaren portzentaje ezberdinak izan direla. Hala ere azpimarratu behar da 2011tik aurrera aldaketa alderantzizkoa izan dela: ehuneko bat beherantz.

Aurreko gastu horretan sartzen badira ZLPak eta etxeko zaintzarako laguntzak, 2012an 119,87 milioi euro gastatu dira, 2008an baino ehuneko 15 gehiago. Zenbateko hori 2011koa baino ehuneko zazpi txikiagoa da, ordea.

Bilakaera horren eragilea berriki onetsitako araudia izan da, txosten honetako aurreko atalean aipatutakoa. Estatuak jasaten duen krisi ekonomikoari erantzuteko ahaleginean, erabiltzaileek jasotzen duten mendekotasuneko prestazio ekonomiko murrizketa orokorra ekarri du, eta luzatu egin ditu prestazio horietarako eskubidea erabiltzeko hasiera batean jarri ziren epeak.

	2008 (eurotan)	2012 (eurotan)	12/08 aldea (%)
Adinekoen zentroetako erabiltzaileen kuotak	9.653.506	19.976.326	107
Ezgaitasuna dutenen zentroetako erabiltzaileen kuotak	3.141.589	4.124.142	31
Buru-gaixoen zentroetako erabiltzaileen kuotak	569.522	706.738	24
<b>Guztira</b>	<b>13.364.617</b>	<b>24.807.206</b>	<b>86</b>

Erabiltzaileei prestazioen zati bat ordainarazita lortutako diru sarrerak ehuneko 86 hazi dira 2008-2012 bitartean, eta azken urte horretan 24,81 milioi eurokoak izan dira. Adinekoen zentroen ehuneko 107ko gehikuntza nabarmentzen da; portzentajea ehuneko 31 da ezgaitasuna dutenen-

tzat eta ehuneko 24 buru-gaixotasuna dutenentzat.

Diru sarrera horiek gastu osoaren ehuneko 29 egiten dute 2012an aztertutako barrutietan; 2008an ehuneko 21 baino ez ziren izan.

### IV.3. EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETA- RAKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUEN KUDEAKETAREN AZTERKETA

#### IV.3.1. Adinekoen arloa

Arlo honetan Nafarroako gizarte zerbitzuen zorroan ezarritako beharrak betetzeko adina toki ez zegoela ikusita, 2009an Concerdep programa diseinatu zen, orduan Mendekotasunaren Legeak bermatzen zituen prestazioak zituzten erabiltzaileentzat egoitzetako tokiak kontratatuzko. Langile ratioetarako gomendatutako gutxieneko eta gehieneko mailak ezarri ziren, eta horietatik abiatuta gutxieneko eta gehieneko modulu ekonomikoak finkatu ziren, zentro bakoitzarekin kontratuak negoziatzerakoan erreferentzia gisa erabiltzeko. Adjudikazio prozedura kasu guztietan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izan zen, lau urterako gehienez, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.1.b artikulua babesean, honelako kontratazioen ezaugarri bereziak direla; izan ere profesional bakarrari agindu ahal zaio zerbitzu hauen prestazioa, pertsonen ingurunearekin duten atxikimenduarengatik, dagoen eskaintza-rengatik eta abarreko arazoengatik.

Kontuan izanik ezarritako modulu ekonomikoaren zati bat erabiltzaileak ordaintzen diola zuzenean entitate pribatuari, Kontratuari buruzko Foru Legearen arabera zerbitzuen kudeaketaren kontzesioa izanen litzateke kontratu modalitaterik egokiena, eta ez laguntza kontratua; azken kontratazio mota horrek prozedura irekia eskatuko luke, ez negoziatua, salbu eta lehenbizikoa huts deklaratu-kobalitz, eta kontratuaren gehieneko epea 30 urtekoa izanen litzateke, ez lau urtekoa.

Gaur egun askotariko moduluak daude ezarrita prestazio eta mendekotasun-gradu beretarako. Zentro bakoitzaren ezaugarri berezien arabera (langileak, eskaintzen diren programak eta zerbitzuak...) egindako negoziazioen emaitza dira, eta txosten honen II. eranskinean ikus daitezke.

Zentro pribatuekin guztira 30,96 milioi euroren truke egindako bost kontraturen lagina aztertutik, ondorio gisa esan daiteke, oro har, kontratazio espedientearen izapideak eta kontratuaren exekuzioa indarra duen araudiari jarraituz egin direla. Halere, akats hauek aurkitu dira:

- Erabiltzaileen ez-ordaintzeen kudeaketa, NPAAren egitekoa, ez da behar bezala egiten. Prozedura ez dago sistematizaturik, ez zaie erreklamazio ofizialik egiten erabiltzaileei, eta zorra ez da betearazpen bidean jartzen. Ildo horretan prozesuaren protokoloa eta tresna informatikoa diseinatu dira, eta kobratzeko dauden ordainagirien kudeaketari ekin zaio.

- Kontratazio agirietan ezartzen da Gizarte Politiketako Sailak noiznahi ikuska ditzakeela zen-  
troak. Egiaztatu da arau-hausteak detektatu ondo-  
ren ahozko kargu-hartzea beste neurririk ez dela  
hartzten, kontratuak arautzen dituzten agirien tes-  
tuek dituzten mugen ondorioz.

**Ondorio gisa**, Concerdep programako kontra-  
tuetarako finkatutako modulu ekonomikoaren artean  
alde adierazgarriak daude, batik bat zentroetako  
langile ratio ezberdinak, kontratuan arreta soziosa-  
narioko eta errehabilitazioko langileak sartzea  
edo ez sartzea (zentroko langileak, Osasun  
Departamentuak edo diru-laguntzen bidez finan-  
tzatutako langileak diren), inguruko pertsonen arreta  
emateko betebeharra, eta prestazioak eskaintze-  
ko baliabide publikorik eza. Hala ere, eta  
Gizarte Politiketako Departamentuak ahalegin  
handia egin bazuen ere langile ratioak ezartzeko  
eta modulu ekonomikoak finkatzeko, esan beharra  
dago akatsak egin direla, arretaren kalitatearen  
neurketarekin edo baliabideen erabileraren eragin-  
kortasunarekin zerikusia dutenak, eta alderdi hori-  
ek hobetu egin litezkeela.

Horren harira, Gizarte Politiketako Departamen-  
tuko Plangintza, Kalitate eta Ikuskapen Zerbit-  
tza eta NPAA lanean ari dira baliabideen kontsumo-  
a mendekotasun graduaren arabera homogeneizatzea  
ahalbidetuko duen arreta asistentzialaren eredu-  
a ezartzen. Eredu hori finkatzen denean hobetu  
ahal izanen dira aipatutako alderdiak, zentro  
bakoitzeko modulu ekonomikoak ezartzeko  
garaian.

#### IV.3.2. Ezgaitasunaren arloa

Arlo honetan berariazko agiriak egin ziren kon-  
tratu bakoitzerako, baina guztiak egin ziren eskaki-  
zun tekniko berberen pean.

Bi kontratu pribatu berrikusi dira lagin gisa, eta  
guztira 18,6 milioi euro inguruko gastua ekarri  
dute. Oro har, kontratazio espedienteak, publizitate-  
rik gabeko prozedura negoziatuaren bidez egina,  
eta geroko exekuzioa, dena egin da indarra duen  
legediari jarraituz. Azpimarratzekoa da, hala ere,  
zentro batean, fiskalizatutako adjudikazioaren  
aurretik, kontratua amaitutakoan zerbitzua ematen  
jarraitu zela 2008ko urtarriletik 2009ko abuztura  
arte.

Besteren baliabideekin kudeatutako hiru zentro  
berekien laginari dagokionez, guztira kontratuen  
balioa 49,5 milioi euro inguru izan da, eta guztiak  
adjudikatu dira prozedura irekiaren bidez eta  
eskaintzarik onuratsuenaren irizpideari jarraituz.  
Kontratazioaren izapideak eta geroko exekuzioa,  
oro har, ongi egin dira. Alderdi hauek azpimarratu  
behar dira, ordea:

- Kontratu bat adjudikatzeko prozesuan aurkeztu ziren hiru eskaintzetako bat baztertu egin zen, eguneko zentroko prestazioari zegokion kontratuzatia ez zela bideragarria iritzi zitzaiolako. Enpresak alegazioak egin zituen, datuak argituz eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen arabera eskaintza bere osoan baloratu behar dela argudiatuz, baina kontratazio mahaiak erabakiari eutsi zion eta ez zuen eskaintza onartu, mahaikide batek aurkako botoa eman bazuen ere. Ustez kalte-tutako enpresak adjudikazio-ebazpenaren aurkako errekurtsua jarri zuen eta 2011n Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak arrazoia eman zion, esanez eskaintza bere osoan baloratu behar zela eta ez zatika. Adjudikazioa zuen enpresak erabaki horren aurkako errekurtsua jarri zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian, eta 2012ko azaroan Auzitegiak adjudikazio prozesutik baztertutako enpresaren aldeko epaitza eman zuen. Ziur asko enpresa horrek kalte-ordaina eskatuko dio NPAari, eta munta handikoa izan liteke.

- Bi kasutan berriro ikusi da zerbitzuak ematen jarraitu dela 2012ko apiriletik eta urritik gaur arte (kontratazio mahaiak erabakia hartu du, baina adjudikazio-ebazpena errekurrituta dago). Hain zuzen ere mahaiaren erabakiaren kontrako errekurtsua jarri duen enpresa aurreko kasuko enpresa bera da, eta balizko onuradunak lotura estua du harekin, pertsona juridiko bera ez izan arren.

- Aurreko kasuan bezala, egiaztatu da Ikuskapen Zerbitzuak arau-hausteak atzeman ondoren hartzen diren neurriak ahozko kargu-hartzeak besterik ez direla izaten, baldintzen agirietako testuen mugen eta interpretazioen ondorioz.

#### IV.3.3. Buru-eritasunaren arloa

Arlo honetan berariazko baldintza-agiriak egin dira kontratu bakoitzerako. Ez da oinarri orokorrik izan, baina eskakizun teknikoak antzekoak izan dira kasu guztietan.

Hiru kontratu pribaturen lagina aztertu da. Haietako bat laguntza kontratuaren modalitatearen arabera izapidetu da (gehienez lau urteko iraunaldia), eta beste bi, zerbitzuak kudeatzeko kontratu gisa (gehienez 75 urteko iraunaldia), une bakoitzeko araudi aplikagarriak mota ezberdinetako kontratuak egitea ahalbidetzen baitzuen.

Oro har, indarra duen legediari jarraitu zaio kontratazioaren espedientean eta geroko exekuzioan. Hala ere, azpimarratzekoa da zentro batean, fiskalizatutako adjudikazioaren aurretik, zerbitzua eman zela 2006ko urtarriletik 2007ko martxora arte, kontratua bukatutakoan, eta gaur egun ere zerbitzua ematen ari dela era berean, 2011ko martxoan kontratua bukatu zenez geroztik.

Egiaztatu da orobat kontratuen baldintza-agiriek badituztela mugak, arau-hausteren bat atzematenean zehapen eraginkorra ezartzea eragozten dutenak.

#### IV.4. GASTU PUBLIKOAREN ZENBATESPENA TOKI BAKOITZEKO, ESPARRU PUBLIKOAN

##### IV.4.1. Adinekoen arloa

Zuzenean kudeatzen diren bi zentro berekik hainbat mendekotasun-gradutarako prestazio ezberdinak eskaintzen dituzte, eta horrek berekin ekarriko luke baliabideen kontsumo ezberdina. Horregatik, prestazio bakoitzaren barruan mendekotasun graduaren araberrako baliabide-kontsumoa kalkulatzeko ahalbidetuko lukeen kostu-sistemarik ez dagoenez, ezin izan da gastu publikoa zenbatetsi toki bakoitzeko.

##### IV.4.2. Ezgaitasunaren arloa

Bi zentro bereki daude, eta haietako bakoitzak prestazio mota bakarra eskaintzen du ezgaitasun edo mendekotasun gradu bererako. Kasu honetan bai, egin ahal izan da zentro bakoitzaren aurrekontu-gastuaren zenbatespena toki bakoitzeko.

Egoitzetako tokiek 2012. urtean 60.794 euroko gastua eragin zuten, 2008an baino ehuneko 19 gutxiago. Etxebizitza funtzionaltoko tokiek, berriz, 36.463 euroko gastua eragin zuten 2012an, ehuneko zazpi behera eginda 2008ko gastuaren aldean.

Ez dira erkatu gastu zenbatetsia eta zentro pribatuei ordaindutako gastua, zentroetan artatzen diren pertsonen ezgaitasun graduak ez direlako homogeneoak edota hainbat prestazio batera ematen direlako zentro pribatuetan; inguruabar horiek nabarmen eraldatuko lituzkete emaitzak.

Egindako lanaren ondorioak ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

- *Adinekoen zentroetan arreta asistentzialaren eredu homogeneoa taxutzeko hasitako lana aurre-eramatea, azterketa sakonagoa eginez, mendekotasun graduaren araberrako arretarako modulu ekonomiko bakarra sortu arte. Modulu horrek artapenaren kalitate maila bera bermatu behar die prestazio horien erabiltzaile guztiei. Modulu horren osagarri, zentro bakoitzaren ezaugarriak adieraziko lituzketen bestelako aldagaiak ezarri behar lirateke, hala nola kokapen geografikoa edo langile erantsiak. Hala, erakundeei ordaindutako amaiera-ko prezioek ez lukete zertan berdinarik izan.*

- *Ez-ordaintzeak kudeatzen jarraitzea, zorraren preskripzioa saihesteko.*

- *Kontratuak arautzeko administrazio-agiri oso-ago eta argiagoak egitea, zehapenak ezarri ahal izan daitezen eta Ikuskapen Zerbitzuaren lana eraginkorra izan dadin.*

- *Kontuan hartzea zerbitzuen kudeaketaren kontzesioko kontratu mota erabiltzeko aukera geroko adjudikazioak egiteko, kontratuen iraunaldia luzatuz, horrela eraginkortasun administratiboa hobetuko bailitzateke, egun egiten diren izapideak saihestuta; izan ere honelako kontratuak gaur egun lau urteko iraupena dute.*

- *Ikuskapen Zerbitzuaren eginkizuna sendotzea, eginkizun garrantzitsua baita: zentro bakoitzari ordaintzen zaizkion prezioak justifikatzen dituzten kontratuetako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.*

- *Neurri egokiak taxutzea kontratuak betetzen ez direnean zehapenak ezarri ahal izan daitezen.*

- *Kontratuak arautzen dituzten agirietan kalitate-neurriak jasotzea, hala nola gogobetetasunari buruzko inkestak edo adierazleak, ezarritako modulu ekonomikoen egokitasuna egiaztatzeko eta hobekuntzak egin ahal izateko.*

- *Amaitzear dauden kontratuen adjudikazioak garaiz izapidetzea, lege estaldurarik gabeko zerbitzurik eman ez dadin.*

- *Kostu-sistema egokia ezartzea baliabideen kontsumoa kalkulatu ahal izateko prestazio motaren eta mendekotasun graduaren arabera.*

- *NPAARI dagokion oroitidazkia amaitzea, jarduerari buruzko datuak, datu ekonomikoak eta egokitzat jotzen diren bestelakoak jasoz, eta argitaratzea.*

## V. NAFARROAKO MENDEKOTASUNAREN EREMUKO EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUEN AZTERKETA

Ondoren zenbait iruzkin eginen ditugu, Nafarroako mendekotasunaren eremuko egoitzako baliabideei buruz egindako azterketaren haritik, aurreko atalean jasotako ondorioak eta aholkuak errazago ulertzen lagunduko dutelakoan:

### V.1. EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUEN BILAKAERA NAFARROAN (2008-2012)

Jarraian azalduko da zer-nolako bilakaera izan duten Nafarroako egoitza baliabideek 2008-2012 bitartean, aztertutako arloetan (urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak dira):

#### V.1.1. Adinekoen arloa

Arlo honetan bi motatako prestazioak daude: egoitzetako tokiak eta eguneko zentroetako tokiak. Taulan azaltzen dira aztertutako aldiko eboluzioa eta Mendekotasunaren Legea baino lehenagoko tokien kopurua, erabilgarri dauden tokien guztizko kopuruaren barnean duen garrantziagatik:

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoa 2012
Mendekotasunaren eremuan kontratatutak	--	822	1.197	1.197	1.170	--	59
Mendekotasunaren Legearen aurretik kontratatutak	970	629	557	556	556	-43	28
Berekiak	263	263	263	263	263	--	13
<b>Guztira</b>	<b>1.233</b>	<b>1.714</b>	<b>2.017</b>	<b>2.016</b>	<b>1.989</b>	<b>61</b>	<b>100</b>

#### Eguneko zentroetako tokiak

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoa 2012
Mendekotasunaren Legearen aurretik kontratatutak	91	91	95	95	95	4	86
Berekiak	15	15	15	15	15	--	14
<b>Guztira</b>	<b>106</b>	<b>106</b>	<b>110</b>	<b>110</b>	<b>110</b>	<b>4</b>	<b>100</b>

Ikus daitekeenez, 2008an ez zegoen egoitzetako toki bakar bat ere kontraturik mendekotasunaren eremuan. Urte hartatik aurrera taxutu zen Cocerdep programa, Mendekotasunaren Legearen babesean tokiak kontratatuzko oinarri arauemaile orokorrak dakartzana (oinarriok zehatz azaltzen dira txosten honen V.3.1 atalean), eta, horrenbestez, behera egin zuen araudi hori baino lehenagoko tokien kopuruak eta gora egin zuen kontraturatuen kopuruak, Mendekotasuna baino lehenagoko hainbat toki araudi horren pean itundutako toki bilakatu baitziren. Egoitzetako toki berekien kopurua ez da aldatu aztertutako aldiari, baina tokietako batzuk mendekotasunaren eremura aldatu dira.

Eguneko zentroetako prestazioari dagokionez, gaur ez dago mendekotasunaren eremuan itundu-

tako tokirik. Mendekotasunaren Legea onetsi aurreko kontraturatutako tokien kopuruari eutsi zaio, eta halakoak ehuneko lau hazi dira ebaluatutako aldiari. Berritoki ere mota horretako toki berekiek aldaketarik gabe iraun dute 2008tik 2012ra bitarteko urteetan.

Era berean kontuan hartu behar lirateke eremu pribatuaren lehen aipaturako ZLPen bidez finantzaturak betetzen diren tokiak.

### V.I.2. Ezgaitasunaren arloa

Arlo honetan oinarritako hiru prestazio bereiz daitezke: egoitzetako tokiak, eguneko zentroak eta etxebizitza funtzionalak. Honelako bilakaera izan dute:

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoak 2012
Besteren zentroetan itunduak	70	70	70	70	70	--	14
Berekiak, bestek kudeatuta	330	330	330	330	330	--	69
Berekiak	80	80	80	80	80	--	17
Guztira	480	480	480	480	480	--	100

#### Eguneko zentroetako tokiak

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoak 2012
Besteren zentroetan itunduak	130	130	141	141	141	8	62
Berekiak, bestek kudeatuta	88	88	88	88	88	--	38
Guztira	218	218	229	229	229	8	100

#### Etxebizitza funtzionalak tokiak

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoak 2012
Besteren zentroetan itunduak	--	--	31	43	43	--	44
Berekiak, bestek kudeatuta	44	44	44	44	44	--	45
Berekiak	11	11	11	11	11	--	11
Guztira	55	55	86	98	98	78	100

Taulan ageri denez, bitarte honetan ez dago alderik egoitzetako tokien kasuan, eta ehuneko zortziko igoera txikia dago eguneko zentroetako tokietan, toki gehiago itundu direlako zentro pribatuekin. Etxebizitza funtzionaltako tokien kopuruak ehuneko 78 egin du gora aztertutako aldian, arrazoi beragatik, hots, toki gehiago itundu direlako aldi horren hasieran existitzen ez ziren besteren zentroekin.

Aipatu behar da ezgaitasunaren arloan badaudela larrialdietarako tokiak ere erabilgarri. Azertu-

tako aldian bitik bostera igo da halakoen kopurua. Hiru toki daude bestek kudeatutako zentro berekietan eta bi toki zentro pribatuetan.

### V.I.3. Buru-eritasunaren arloa

Arlo honetan hiru motatako prestazioak daude, funtsean: egoitzetako tokiak, eguneko zentroak eta errehabilitazio psikosozialeko zentroak (EPSZ). Hona hemen 2008-2012 bitartean izan duten bilakaera:

Egoitzetako tokiak

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoa 2012
Besteren zentroetan itunduak	82	82	82	82	82	--	77
Berekiak, bestek kudeatuta	--	--	--	--	25	--	23
<b>Guztira</b>	<b>82</b>	<b>82</b>	<b>82</b>	<b>82</b>	<b>107</b>	<b>30</b>	<b>100</b>

Eguneko zentroetako tokiak

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoa 2012
Besteren zentroetan itunduak	105	105	105	105	105	--	78
Berekiak, bestek kudeatuta	--	--	--	--	30	--	22
<b>Guztira</b>	<b>105</b>	<b>105</b>	<b>105</b>	<b>105</b>	<b>135</b>	<b>29</b>	<b>100</b>

EPSZetako tokiak

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Toki kopuru osoaren baitako ehunekoa 2012
Besteren zentroetan itunduak	130	130	130	130	130	--	79
Berekiak, bestek kudeatuta	--	--	--	--	35	--	21
<b>Guztira</b>	<b>130</b>	<b>130</b>	<b>130</b>	<b>130</b>	<b>165</b>	<b>27</b>	<b>100</b>

Kasu guztietan toki erabilgarrien kopuruari eutsi zaio 2008-2011 bitartean zentro pribatuetan, eta 2012an toki erabilgarrien guztizko kopurua ehuneko 29 handitu da, besteren baliabideekin kudeatutako zentro bat ireki delako.

Gainera, badira zaintzapeko etxebizitzetako tokiak eta larrialdietarako tokiak. Zaintzapeko etxebizitzetako 18 toki egon dira zentro pribatuetan aztertutako aldi osoan eta 2012an besteren baliabideekin ireki eta kudeatutako zentro berekian larrialdietarako toki bat jarri da, lehenago ez baitzegoen horrelakorik.

### V.2. EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (2008-2012)

Dauden baliabideak azterturik, jarraian aurkeztuko dugu 2008-2012 bitartean horietara bideratu den gastu publikoa. Esan behar da a posteriori egiten diren azterketa guztien baldintzatzaile dela kudeaketa motaren arabera erabilgarri dauden tokien kopuruak, gorago azaldu denak, izandako bilakaera.



	2008	2009	2010	2011	2012	2012/2008 aldea (%)	Kopuru osoaren baitako ehunekoa 2012
Adinekoen zentroen kudeaketa <sup>(1)</sup>	20.119.053	23.779.648	37.555.101	40.467.203	39.677.087	97	47
Ezgaitasuna dutenen zentroen kudeaketa	23.372.783	25.264.589	25.884.250	27.371.912	27.797.441	19	33
Buru-gaixoen zentroen kudeaketa	3.385.078	3.581.760	3.516.077	3.734.047	4.564.410	35	5
Adinekoentzako zentro berekiak <sup>(1)</sup>	9.551.080	9.278.712	8.905.866	8.465.407	7.822.763	-18	9
Ezgaitasuna dutenentzako zentro berekiak	6.401.373	5.970.212	5.892.463	5.600.009	5.264.642	-18	6
<b>Guztira</b>	<b>62.829.367</b>	<b>67.874.921</b>	<b>81.753.757</b>	<b>85.638.578</b>	<b>85.126.343</b>	<b>35</b>	<b>100</b>

(1) Barruan hartzen du mendekotasuna duen pertsonatza baloratu ez diren baina egoitza-baliabiderako eskubidea duten lehenagoko erabiltzaileen mantenerako gastua.

Goiko taulan agerienez, gastuaren aldaketa ezberdina izan da kudeaketa mota bakoitzean. Adinekoen zentroak kudeatzeko gastuaren igoera nabarmentzen da, bikoiztu egin baita ia-ia. Buru-gaixoenentzako zentroek, berriz, ehuneko 50 inguruko igoera izan dute, eta ezgaitasuna dutenentzako zentroek ehuneko 20koa.

Zuzenean kudeatzen diren zentro berekietako gastuari dagokionez, aztertutako aldiaren ehuneko 18 egin du behera bai adinekoen eremuan bai ezgaitasunaren eremuan. Gastu horietarako betetako aurrekontua, eurotan, honela banatu da arlo-en artean aztertutako aldiaren:

#### Adinekoentzako zentro berekiak

	Langile gastuak	Funtzionamendu gastuak	Inbertsio gastuak	Gastua, guztira
2008	8.054.374	1.290.787	205.919	9.551.080
2009	7.879.390	1.256.663	142.659	9.278.712
2010	7.691.272	1.150.169	64.425	8.905.866
2011	7.311.413	1.106.446	47.548	8.465.407
2012	6.654.491	1.095.899	72.373	7.822.763
12-08 aldea (%)	-17	-15	-65	-18

#### Ezgaitasuna dutenentzako zentro berekiak

	Langile gastuak	Funtzionamendu gastuak	Inbertsio gastuak	Gastua, guztira
2008	5.424.738	618.485	358.150	6.401.373
2009	5.368.442	588.022	13.748	5.970.212
2010	5.214.734	614.923	62.806	5.892.463
2011	4.981.259	596.714	22.037	5.600.010
2012	4.644.282	580.676	39.684	5.264.642
12-08 aldea (%)	-14	-6	-89	-18

Ehuneko 18 jaitsi da guztizko gastua bai adinekoentzako zentroetan bai ezgaitasuna dutenentzako zentroetan. Jaitsiera hori zentro horietako gastu guztien beherakadaren ondorio izan da. Inbertsio gastuak jaitsi dira gehien, eta ondoren langileen gastuak eta funtzionamendukoak. Aipatu behar da langileen gastua gutxiago murriztu dela inbertsio gastua baino, baina pisu erlatibo handiagoa duela gastuen guztizko zenbatekoan eta, azken batean,

eragin nabarmenagoa duela gastu osoaren aldatetan.

Bestalde, kontuan izanik Mendekotasunaren Legeak erabiltzaileari prestazioen zati bat finantzatzeke agintzen diola, ondoren azalduko dugu prestazioen erabiltzaileek ordaindutako kuoten bidezko diru sarrerek nolako bilakaera izan duten aztertutako aldiaren:

	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)	Kopuru osoaren baitako ehunekoa 2012
Adinekoentzako zentroen kuotak	7.916.014	9.454.575	16.615.050	17.955.262	18.148.590	129	73
Ezgaitasuna dutenentzako zentroen kuotak	2.629.954	2.914.729	3.021.031	3.236.175	3.465.065	32	14
Buru-gaixoentzako zentroen kuotak	569.522	599.396	613.154	636.503	706.738	24	3
Adinekoentzako berekien kuotak	1.737.492	1.615.066	2.061.879	1.726.245	1.827.736	5	7
Ezgaitasuna dutenentzako berekien kuotak	511.635	436.765	660.305	570.366	659.077	29	3
<b>Guztira</b>	<b>13.364.617</b>	<b>15.020.531</b>	<b>22.971.419</b>	<b>24.124.551</b>	<b>24.807.206</b>	<b>86</b>	<b>100</b>

Adinekoentzako zentroetako erabiltzaileek ordaindutako kuoten gorakada nabarmentzen da, ehuneko 129 igo baitira. Ezgaituentzako eta buru-gaixoentzako zentroetako prestazioen erabiltzaileen kuotek igoera apalagoa izan dute, hurrenez hurren ehuneko 32 eta ehuneko 24. Zentro berekien kasuan kuotak ehuneko 29 igo dira ezgaitasuna dutenentzako zentroetan eta ehuneko bost adinekoentzako zentroetan.

### V.3. EGOITZAKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUEN KUDEAKETAREN AZTERKETA

Jarraian azalduko ditugu egoitzetako zerbitzuak emateko kontratuen kudeaketaren fiskalizazioaren emaitzak, mendekotasunaren eremuko arloak bereiziz (adinekoak, buru-eritasuna eta ezgaitasuna), errazago uler daitezten:

#### V.3.1. Adinekoak

Nafarroako Gobernuaren txosten tekniko baten arabera, Mendekotasunaren Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea eta gizarte zerbitzuen zorroa onetsitakoan, egoitzetako baliabideen eskariak gainditu egiten zituen gure erkidegoko baliabideak. Horregatik, 2009an Concerdep programa sortu zen, Nafarroan mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitzako arretaren beharra asetze aldera.

Toki asko kontratatu nahi ziren, eta zentro pribatuak ugariak zirenez, horrelako zerbitzuak kontratatzeke oinarri arauemaile orokorrak egin ziren.

Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzetako zerbitzuak kontratatzeke bete beharreko baldintza teknikoak ezarri ziren lehenik. Eskatu beharreko baliabideen bi maila finkatu ziren, txosten honen I. eranskinean kontsulta daitezkeenak:

- Gomendatutako gutxieneko maila: kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko eta Concerdep programako baldintzetan kontratatu ahal izateko gutxieneko eskakizunak (langileak, programak eta zerbitzuak).

- Gomendatutako maila gorena: gomendatutako langile ratio onenak, zerbitzu eta programa gehien eskaintzea ahalbidetzen dutenak.

Maila bakoitzaren barruan kategoria hauek bereizi ziren: mendekotasun handia eta II. mailako mendekotasun larria, mendekotasun arina eta I. mailako mendekotasun larria, eta mendekotasunik eza. Langile beharrak aldatu egiten ziren kategoria batetik bestera. Zentroaren tamainak edo erabiltzaileen kopuruak ere betekizun horiek aldaraz zitzaizketen.

NPAAko Zerbitzuen Atalak finkatu zituen langile ratio horiek, urtebetean zehar egindako jakintzarlo anitzeko bileren bitartez. Bilera haietan langile beharrak aztertu ziren jarduera motaren arabera, askotariko informazio iturriak kontuan izanik: gaiari buruzko Estatuko eta Europako araudia, orduko zentroek zituzten langileak, etab.

Maila bakoitzerako behar ziren langile ratioak ezarri ondoren, hurrengo pausua izan zen NPAAko Kontratuen Atalak haien balorazio ekonomikoa egitea etorkizuneko kontratuen prezioak finkatzeko.

Atal horrek, zehaztutako langile ratioak ez ezik, beste informazio iturri batzuk ere erabili zituen, esate baterako orduko entitate itunduen galera-irabazien kontuak, zentroek zituzten hitzarmen kolektiboetako batez bestekoa, ordura arte indarra zuten kontratuen baldintza tekniko eta administratiboak agiriak eta abar. Informazio horiek guztiak erabiliz, hileko bi erreferentzia-modulu finkatu ziren

mendekotasun maila bakoitzerako, ehuneko 82an langile gastuez eta ehuneko 18an gainerako gastuez osatuak. Honela definitu ziren:

- Gehieneko prezioa: toki bakoitzeko gehienez zenbat ordainduko zaien egoitza handienei,

gomendatutako maila goreneko programa eta zerbitzu gehien eskaintzen dituzten horiei.

- Gutxieneko prezioa: toki bakoitzeko zenbat ordainduko zaien gomendatutako gutxieneko mailako egoitzei.

Eraitza hau lortu zen 2009an, eurotan:

	Mend. handia eta II. mailako mend. larria	I. mailako mend. larria eta mend. arina	Mendekotasunik ez
Gomendatutako maila gorena	2.350	1.527	1.057
Gomendatutako gutxieneko maila	1.744	1.131	711

Ikus daitekeenez, alde adierazgarria dago gehieneko eta gutxieneko modulu ekonomikoen artean. Horren arrazoi nagusiak dira maila bakoitzean langile ratio ezberdina behar dela eta arreta soziosanitarioko eta errehabilitazioko langileak (medikua, erizaina, fisioterapeuta, terapeuta okupazionala, gizarte langilea, astialdiko begiralea eta abarrekoak) zenbait kasutan Osasun Departamentutik datozela edo diru-laguntzekin finantzatzen direla. Hala, kasu horietan ez zen moduluaren kalkuluan sartu langile horien kostua, baina zentroko langile berekiak zirenean bai, kontuan hartu ziren, ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko.

Balorazio hori egin ondoren, hauek izan ziren azken aholkuak: egoitza bati ordaindu beharreko diru kopuruak ez du gainditu behar ezarritako gehieneko prezioa, eta lortzen den gutxieneko prezioa, berriz, behearantz negoziatu daiteke, kontraturako lehiatzen den zentroaren zenbait ezaugarri aintzat harturik, esate baterako BEZaren salbuespena edo zentroetako batzuek zenbait langile kontratatuzeko jasotzen duten diru-laguntza, betiere ezarritako ratio orokorra betetzen bada.

Proposatu zen, gainera, zentro bakoitzarekin goian aipatutako gehieneko eta gutxieneko mailen artean prezio ezberdina kontratatu ahal izatea erakunde pribatu bakoitzaren langile ratioen eta inguruabar berezien arabera.

Informazio horretan oinarriturik, NPAAko zuzendari kudeatzailearen 1232/2009 Ebazpena

onetsi zen, mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzako arretarako zerbitzuen laguntza-kontratuak egiteko. Erkidegoko publizitaterik gabeko prozedura negoziatua ezarri zen laguntza-kontratuak adjudikatzeko, lau urterako gehienez, luzapenak barne, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.1.b artikulua babesean, mota horretako kontratazioen ezaugarriak direla-eta; izan ere profesional bakarrari agindu ahal zaio zerbitzu hauen prestazioa, pertsonen ingurunearekin duten atxikimendua, dagoen eskaintza eta abar kontuan izanik.

Kontratuak arautzeko agiritan ezartzen zen erabiltzaileak zuzenean ordainduko ziola modulua zati bat entitate pribatuari; beraz, Kontratuari buruzko Foru Legearen arabera, zerbitzuen kudeaketaren kontzesioa zen modalitaterik egokiena. Horrelako kontratua aukeratu izan balitz, ezin zatekeen publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili, prozedura irekia huts deklaratu ezean, eta kontratuak gehienez 30 urte iraun zezakeen.

Programa horren arabera egin ziren lehenbiziko kontratuak 2009ko abuztukoak dira. 2012ko abenduaren 31n Concerdep programako 41 kontratu zeuden indarrean, egoitzetako 1.170 toki biltzen zituztenak, guztira. Zentro bakoitzarekin 2012rako negoziatutako moduluak txosten honen II. eranskinean jaso dira. Hona hemen urte horretarako mendekotasun mailaren arabera negoziatutako gutxieneko eta gehieneko moduluak:

	Gutxieneko modulua	Gehieneko modulua
Mendekotasun handia eta II. mailako mend. larria	1.567	2.360
I. mailako mend. larria eta mend. arina	1.033	1.533
Mendekotasunik ez	916	1.060

Ikus daitekeenez, badaude aldeak mendekotasun maila bakoitzerako negoziatutako gutxieneko eta gehieneko moduluen artean, batik bat mendekotasun handiaren eta II. mailako mendekotasun larriaren moduluetan eta I. mailako mendekotasun larriaren eta mendekotasun arinaren moduluetan. Alde horiek, azaldu den bezala, zentro bakoitzak aurkeztutako langile ratioei eta zentro bakoitzaren inguruabarrei zor zaizkie: eskainitako programak eta zerbitzuak, metro karratuak etab.

Concerdep programaren babesean egindako bost kontraturen lagina hautatu da. Kontratuok guztira 30,96 milioi euroko balio zenbatetsia dute (BEZik gabe). Aztertutako kontratuen adjudikazioei buruzko datu nagusiak azalduko dira jarraian; 2012an baliteke tokien kopurua aldatu izana, eta moduluak eguneratuta egonen dira.

Zentroa	Tokiak	Hileko modulua toki bakoitzeko (euroak)	Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZik gabe)	Kontratuaren hasiera data	Kontratuaren amaiera data, beranduenez (luzapenak barne)
S. Manuel y S. Severino egoitza (Tafalla)	83	Mend. handia eta II. mailako mend. larria: 2.196 I. mailako mend. larria eta mend. arina: 1.399 Mendekotasunik ez: 891	8.855.320	2010/04/01	2014/03/31
Amma Mutilva egoitza	141	Mend. handia eta II. mailako mend. larria: 2.350 I. mailako mend. larria eta mend. arina: 1.527 Mendekotasunik ez: 1.057	16.551.015	2009/11/02	2013/11/01
San Fco. Javier egoitza (Faltzes)	12	Mend. handia eta II. mailako mend. larria: 1.653 I. mailako mend. larria eta mend. arina: 1.005	952.341	2010/07/15	2014/07/14
San José egoitza (Valtierra)	21	Mend. handia eta II. mailako mend. larria: 2.181	2.198.559	2009/12/17	2013/12/16
Nuestra Sra. de Gracia egoitza (Viana)	27	Mend. handia eta II. mailako mend. larria: 1.857 I. mailako mend. larria eta mend. arina: 1.172	2.584.499	2010/04/01	2014/03/31

Horrez gain, Concerdep programaren aurretik adjudikatutako 11 kontratu indardunetako bat aztertu da; zehazki, Cintruenigoko San Francisco de Asís egoitzarekin 2005ean 10 urterako egindako kontratua, iraupen hori onartzen zuen Kontratu Publikoari buruzko 10/1998 Foru Legearen babesean egina. Kontratuaren 10 urteetarako 7,2 milioi euroko zenbatekoa kalkulatu zen (kasu honetan erabiltzaileen kuotak kenduta), eta hilean 1.540 euroko modulua ezarri zen toki bakoitzeko.

Oro har, kontratazio espedientearen izapideak eta aztertutako kontratu guztien exekuzioa (luzapenak, 2012an itundutako moduluei KPlaren igoeira ez aplikatzeko egin diren aldaketak eta fakturazioa barne) indarra duen legediaren arabera egin dira. Halere, akats hauek aurkitu dira:

- Kasuetako batean 2011. urteko kontuen oroitazkia eta oroitidazki teknikoak falta dira, kontratazio agirietan eskatzen badira ere.

- Erabiltzaileen ez-ordaintzeen kudeaketa, NPAAren egitekoa, ez da behar bezala egiten. Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa ordain dezan, harremanetan jartzen dira harekin, prozedura sis-

tematizaturik gabe, erreklamazio ofizialik egin gabe eta zorra betearazpen bidean jarri gabe. Horren harira esan behar da NPAAk tresna informatikoa eta protokoloa diseinatu dituela eta hasi direla erreklamatzeko ordaindu gabeko diru kopuruak.

- Kontratazio agirietan badago jasorik Gizarte Politiketako Departamentuak noiznahi ikuska ditzakeela zentro pribatuak, eta kontratua betetzen ez dutenei zehapena ezarri ahal diela.

Egiaztatu da Concerdep programan kontratatutako zentro batek urteko lanorduen kopuruan 3.675 orduko aldea izan zuela hasierako kontratuan hitzartutakoarekin. Nahiz eta kontratua ez bete, 15/2006 Foru Legea eta 209/1991 Foru Dekretua aplikaturik, ahozko kargu-hartzea beste neurririk ez zen hartu eta ez zen zehapen eraginkorrik ezarri, kontratuak arautzen zituzten agirietako testuen akatsen ondorioz.

Hitz batez, Concerdep programaren babesean egindako kontratuetan modulu ekonomikoen arteko alde adierazgarriak egon dira, goian azalduko arrazoiengatik eta, horrez gain, pertsonak beren

ingurunean artatu beharragatik eta prestazio horiek eskaintzeko baliabide publikoen urritasunagatik. Gizarte Politiketako Departamentuak zentro bakoitzaren ezaugarrien arabera langile ratioak eta modulu ekonomikoak ezartzeko egindako lanak ahalegin handia eskatu zuen eta ulertzekoak dira zentroein ordaindutako diru kopuruaren arteko aldeak. Hala ere, zenbateko horien finkapenean akats batzuk hauteman dira, kalitate-estandarren ezarpenarekin, kalitate-neurriekin edota zerbitzuak emateko eraginkortasun mailen neurketarekin zerikusia dutenak.

### V.3.2. Ezgaitasuna

Arlo honetan ez zen zentro guztietarako oinarri orokorrik taxutu, aitzitik, egin beharreko kontratu

bakoitzerako berariazko baldintza-agiriak ezarri ziren, eskakizun teknikoak antzekoak baziren ere, eta modulu ekonomiko ezberdinak sortu ziren kasu bakoitzean. Txosten honen III. eranskinean ikus daitezke 2012koak, baina kontuan hartu behar da ez direla konparagarriak, zentro bakoitzak bere erabiltzaile-profila duelako eta zentro guztiek ez dutelako baliabide-kontsumo bera.

Aztertutako laginean zentro pribatuekiko bi kontratu daude, eta Nafarroako Gobernuaren zentroetan diharduten erakunde pribatuekiko hiru kontratu. Hona hemen kontratu horien adjudikazioen inguruko datu nagusiak:

#### Zentro pribatuak

Zentroa	Tokiak	Urteko modulua toki bakoitzeko (euroak, BEZik gabe)	Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZik gabe)	Kontratuaren hasiera data	Kontratuaren amaiera data (luzapenak barne)
ADACEN	40 egun. zentroan 8 etx. funtzionalean 7 atsed. etxean (hilabete) 1 larrialdietarako	Eguneko zentroa: 20.338 Etx. funtzionala: 22.861 Atsedenerako etxea eta larrialdietarako tokia, lehengo prestazioaren eta iraupenaren arabera	4.399.515	2010/05/18	2014/05/17
Ramon y Cajal	30 egoitzan 90 egun. zentroan 1 larrialdietarako	Egoitza: 39.727 Eguneko zentroa: 24.309 Larrialdietarako tokia, lehengo prestazioaren eta iraupenaren arabera	14.263.053	2009/08/01	2013/07/31

#### Bestek kudeatutako zentro berekiak

Zentroa	Tokiak	Lizitatuzaileen kopurua	Urteko modulua toki bakoitzeko, adjudikazioan (euroak, BEZik gabe)	Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZik gabe)	Kontratuaren hasiera data	Kontratuaren amaiera data (luzapenak barne)
Infanta Elena	70 egoitzan 12 egun. zentroan 1 larrialdietarako	5	Egoitza: 47.817 Eguneko zentroa: 23.482 Larrialdietarako tokia, lehengo prestazioaren eta iraupenaren arabera	16.447.164	2009/07/19	2013/07/18
Valle del Roncal	120 egoitzan 10 egun. zentroan	3	Egoitza: 39.520 Eguneko zentroa: 20.277	22.037.292	2008/10/23	2012/10/22
La Atalaya	35 egoitzan 16 egun. zentroan 15 egoitzan (konduktuala)	5	Egoitza: 45.691 Eguneko zentroa: 20.682 Egoitza konduktuala: 49.974	11.052.413	2008/05/01	2012/04/30

Zentro pribatuen kasuan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili zen kontratuak adjudikatzeko, lau urterako gehienez, luzapenak barne, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeari jarraituz. Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko kontuan hartu ziren lehenago zerbitzua ematen zuten enpresen langile ratioak, sektoreko hitzarmen kolektiboak, tokiak hutsik zeuden aldia etab.

Oro har, kontratazio espedientearen izapideak eta aztertutako kontratuen exekuzioa (luzapenak, 2012an itundutako moduluei KPIaren igoera ez aplikatzeko egin diren aldaketak eta fakturazioa barne) indarra duen legediaren arabera egin dira. Halere, akats hauek aurkitu dira:

- Ramón y Cajal zentroaren kasuan, aurreko adjudikaziodunak emandako zerbitzua 2006an hasi eta 2007ko abenduan amaitu zen. Aztertutako adjudikaziora arte (2009ko abuztua) enpresa berak jarraitu zuen zerbitzua ematen, kontratua bukaturik egon arren.

Besteren baliabideekin kudeatutako Nafarroako Gobernuaren zentroei dagokienez, prozedura irekia erabili zen, eskaintza onuratsuenaren irizpideari jarraituz kontratuak adjudikatzeko, lau urterako gehienez, luzapenak barne, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen arabera. Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, aurreko kasuan aipatutako informazio bera hartu zen kontuan.

Oro har, kontratazio espedientearen izapideak eta aztertutako kontratuen exekuzioa (luzapenak, 2012an itundutako moduluei KPIaren igoera ez aplikatzeko egin diren aldaketak eta fakturazioa barne) indarra duen legediaren arabera egin dira. Halere, akats hauek aurkitu dira:

- Infanta Elena zentroan 2012an egindako ikuskapenak erakutsi duenez, ez da kontratua betetzen zenbait langile ratorri dagokienez. Ez dago jasorik zehapen eraginkorrik ezarri denik arrazoi horrengatik.

- Valle del Roncal zentroko adjudikazio prozesuan hiru lizitatzaille izan ziren. Kontratazio mahaiaren akten arabera, haietako baten proposamena baztertu egin zen, eguneko zentroari zegokion atala ez zelako bideragarria. Enpresak alegazioak egin zituen, bi akats aipatuz: datuak argitzeko emandako informazioan oker bat zegoela; eta ez zirela bi kontratu adjudikatu behar, bakarra baizik, eta eskaintza ekonomikoa bere osoan baloratu behar zela Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru

Legearen arabera. Kontratazio mahaiak enpresa ez onartzeko erabakia berretsi zuen, mahaikideetako batek aurkako botoa eman arren.

Proposamena onartu ez zioten enpresak adjudikazio-ebazpenaren aurkako errekurtsioa jarri zuen, eta azkenik, 2011ko uztailean Administrazio-arekiko Auzien Epaitegiak enpresa horren aldeko epaitza eman zuen: beste bati egindako adjudikazioa deuseza zela deklaratu zuen, eskaintza osoaren balorazio ekonomikoa egin behar zelako, funtsean.

Adjudikazioa zeukan enpresak epaiaren aurkako errekurtsioa jarri zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian. Auzitegiak 2012ko azaroan eman zuen epaitza, proposamena onartu ez zioten enpresaren aldekoa. Enpresa horrek kalte-ordaina eskatzen badu, eta ziur asko hala egingen du, zenbatekoa nahiko handia izanen da.

Bestalde, zentro horretako zerbitzua ematen jarraitu da kontratua amaitu zenetik (2012ko urria) orain arte, legezko babesik ez izan arren. Txosten hau egiteko garaian badago kontratazio mahaiaren adjudikazio-proposamen bat, baina ez da behin betikoa, lizitatzaille batek errekurtsioa jarri diolako.

- Atalaya zentroa kudeatzeko egindako kontratuari dagokionez, kontratu hori bukatu zenetik (2012ko apirila) zerbitzua ematen jarraitu da kontraturik gabe. Adjudikazio berriaren prozesuan adjudikazio-proposamen bat egin da eta errekurrituta dago.

Esan beharra dago adjudikazio-erabaki horien aurkako errekurtsioetan enpresa bera dela errekurtsogilea, eta kontratuen balizko onuradunak, nahiz eta pertsona juridiko bera ez izan, elkarrekin lotura estua dutela.

### V.3.3. Buru-eritasuna

Ezgaitasunaren arloan bezala honako honetan ere ez zen zentro guztientzako oinarri orokorrik egin, berriazko baldintza-agiriak egin ziren kontratu bakoitzerako. Ondorioz modulu ekonomiko ezberdinak ezarri ziren, baina zerbitzua emateko eskakizun teknikoak antzekoak ziren. Txosten honen IV. eranskinean jaso dira 2012rako finkatutako moduluak.

Aztertutako lagineko hiru kontratu zentro pribatuekin egin ziren, eta beste kontratu bat Nafarroako Gobernuaren zentro batean diharduen erakunde pribatu batekin. Hona hemen kontratu horien adjudikazioen inguruko datu nagusiak:

## Zentro pribatuak

Zentroa	Tokiak	Hileko modulua toki bakoitzeko (euroak, BEZik gabe)	Urteko gehieneko aurrekontua (euroak, BEZik gabe)	Kontratuaren hasiera data	Kontratuaren amaiera data (luzapenak barne)
Padre Menni-Benito Menni	82 buru-gaixoentzako laguntzadun egoitzan 14 buru-gaixoentzako zaintzapeko etxebizitzan	Buru-gaixoentzako laguntzadun egoitza: 1.847 Buru-gaixoentzako zaintzapeko etxebizitza: 1.185	8.549.260 (kasu honetan kontratuaren balio zenbatetsia da)	2007/03/16	2011/03/15
Elizondoko EPSZ	15 eguneko zentroan 20 EPSZn	Eguneko zentroa: 1.117 EPSZ: 6,7 euro/orduko	311.392	2005/11/03	2080/11/02
Tuterako EPSZ	30 eguneko zentroan 35 EPSZn	Eguneko zentroa: 790 EPSZ: 5,90 euro/orduko	436.010	2005/11/05	2080/11/04

## Bestek kudeatutako zentro berekiak

Zentroa	Tokiak	Lizitatuzaileen kopurua	Hileko modulua (euroak, BEZik gabe)	Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZik gabe)	Kontratuaren hasiera data	Kontratuaren amaiera data (luzapenak barne)
Félix Garrido	25 egoitzan 35 EPSZn 30 eguneko zentroan 1 larrialdietarako	4	Egoitza: 1.835 EPSZko programa: 19.100 Eguneko zentroa: 780 Larrialdietarako tokia, erabilitako prestazioaren eta iraupenaren arabera	4.363.101	2012/03/15	2016/03/14

Zentro pribatuekin beste mota bateko kontratua sinatu zen. Lehen kasuan laguntza-kontratua sinatu zen, lau urterako gehienez, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen babesean egin baitzen. Bigarren eta hirugarren kasuetan zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak egin ziren, Nafarroako kontratazio publikoari buruzko lehengo araudian jasorik zeudenak. Horrelako kontratuak 75 urte iraun dezakete.

Kontratuaren urteko gehieneko aurrekontua edo, hala bazegokion, balio zenbatetsia kalkulatzeko, kontuan hartu ziren lehenago zerbitzua ematen zuten enpresen langile ratioak, sektoreko hitzarmen kolektiboak, tokiak hutsik zeuden aldiak etab.

Oro har, indarra duen legeriaren arabera egin dira kontratazio espedientearen izapideak eta aztertutako kontratuen exekuzioa (luzapenak, 2012an itundutako moduluei KPIaren igoera ez aplikatzeko egin diren aldaketak eta fakturazioa barne). Hala ere, alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Padre Menni-Benito Menni zentroari dagokionez, aztertutako adjudikazioaren aurreko kontratua 2005eko abenduan amaitu zen, baina zerbitzuak ematen jarraitu zen kontratu indardunik gabe, harik eta 2007ko martxoan kontratua prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu zen arte. Kontraturik gabeko zerbitzuak eman dira, halaber, 2011ko martxoan kontratu hori amaitu zenetik txosten hau egin den arte.

Zentro horretan egindako ikuskapenak erakutsi dutenez, ez da kontratua bete, langileek eta zehazki klinikako laguntzaileek urtean egin behar dituzten 8.005 lanorduei dagokienez. Espedientea abiarazi da, baina azkenean ebatzi da ez direla urratu Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea eta 209/1991 Foru Dekretua, kontuan izanik kontratua arautzen duten baldintza-agirietako testuen mugak eta egin daitezkeen interpretazioak.

- Hasiere batean prozedura irekia erabili zen Elizondoko EPSZko kontratua adjudikatzeko, eta eskaintza bakarra jaso zen. Ez zen eskaintza onartu, ez zituelako betetzen baldintza-agirian

ezarritako langile-eskakizun guztiak, eta lehiaketa huts deklaratu zen. Zerbitzua eman beharra zegoenez, aurreko lehiaketan parte hartu zuen erakundearekin publizitaterik gabeko prozedura negoziatua egin zen eta berari adjudikatu zitzaion kontratua.

- Tuterako EPSZren kasuan, adjudikazio prozesuko gorabeherak aurrekoen antzekoak izan ziren. Hasierako deialdiko lehiaketa huts deklaratu zen, aurkeztu ziren bi eskaintzetako batek ere ez zituelako betetzen baldintza-agirietan ezarritako langile-eskakizunak. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jo zen eta lehiaketan parte hartutako erakundeetako bati adjudikatu zitzaion kontratua.

Besteren baliabideekin kudeatutako Nafarroako Gobernuaren zentroari dagokionez, prozedura irekia erabili zen, eskaintza onuratsuenaren irizpideari jarraituz kontratua adjudikatzeko, lau urterako gehienez, luzapenak barne, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen arabera. Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko kontuan hartu zen zentro pribatuetarako erabilitako informazio mota bera.

Oro har, kontratazio espedientearen izapideak eta kontratuaren exekuzioa (luzapenak eta fakturazioa barne) indarra duen legediari loturik egin dira.

#### V.4. GASTUAREN ZENBATESPENA TOKI BAKOITZEKO, EREMU PUBLIKOAN

Ondoren aurkeztuko da eremu publikoko gastuaren zenbatespena, toki bakoitzeko, adinekoen eta ezgaitasunaren arloetan, ez baitago baliabide berekiekin kudeatutako zentrorik buru-eritasunaren arloan.

##### V.4.1. Adinekoak

Adinekoentzako egoitzetako baliabideen kasuan ez da toki bakoitzeko gastua zenbatetsi, zentro berean askotariko prestazioak eskaini ohi direlako edota hainbat motatako tokiak egoten direlako. Hain zuzen ere inguruabar hauek eragotzi dute zenbatespen hori egitea:

- El Vergel egoitza

a) Egoitzako tokiak: hainbat mendekotasun gradutarako 161 toki daude.

b) Eguneko zentroetako tokiak: 15 toki daude erabilgarri.

Hainbat prestazio ezberdin badaude eta hainbat mendekotasun gradutarako arreta ematen bada, baliabideen kontsumoa ezberdina izanen da prestazio eta mendekotasun gradu bakoitzerako. Baieztapen horren frogara dugu arlo honetako zentro pribatuei prestazio motaren eta mendekotasun graduaren arabera ordaintzen zaizkien moduluen artean dagoen aldea.

- Santo Domingo egoitza

Egoitzako tokien kopurua: 102 toki daude eta horietatik ehuneko 65 inguru dira mendekotasunaren eremutik kanpo leudekeen elbarritasunik gabeko pertsonentzat, ehuneko 19 mendekotasun arina dutenentzat, ehuneko zortzi mendekotasun larria dutenentzat eta ehuneko zortzi mendekotasun handia dutenentzat.

Berriro ere, ez da gastu berdina egiten toki mota guztietan, baliabide beharrak ere ezberdinak direlako.

Aurreko guztia dela-eta ezin izan da gastuaren zenbatespenik egin toki bakoitzeko, nahi zen bezala.

##### V.4.2. Ezgaitasuna

Kasu honetan hauek dira baliabide berekiekin kudeatutako egoitzetako baliabideak:

- San José zentroa: egoitzako 80 toki ditu, ezgaitasun gradu bera duten erabiltzaileentzat.
- Lur Gorri egoitza: etxebizitza funtzionala da, eta 11 toki ditu, ezgaitasun gradu bera duten erabiltzaileentzat.

Zentro bakoitzean prestazio mota bakarra dagoenez eta erabiltzaile guztien laguntza eta arreta premiak antzekoak direnez, toki bakoitzeko aurrekontu-gastua zenbatetsi daiteke, toki bakoitzeko baliabide kontsumoa beti berdintsua izanen delakoan. Aurrekontuko gastu osoa tokien kopuruz zatitzen badugu, hauexek lirarteke urteko funts publikoak toki bakoitzeko, eurotan:



	2008	2009	2010	2011	2012	12/08 aldea (%)
San José zentroa	74.616	69.298	68.213	64.927	60.794	-19
Lur Gorri egoitza	39.278	38.764	39.582	36.897	36.463	-7

Bi kasuetan ere toki bakoitzeko gastu zenbatekiak behera egin du aztertutako epean; San Jose zentroko ehuneko 19ko beherakada nabarmentzen da. Aipatu beharra dago amortizazioak bezalako aurrekontuz kanpoko gastuak falta liratekeela; horiek ez dira aurrekontuan sartu, eta zenbatetsitako gastua handituko lukete.

Txosten honen III. atalean adierazi den bezala, ez da konparaziorik egin honelako tokiak esparru pribatuan kontratatzeak eraginen lukeen gastu publikoarekin, erabiltzaileen ezaugarrien arteko

aldeek eta zentro pribatuetako prestazioen askotarikotasunak nabarmen baldintza dezaketelako toki bakoitzeko gastua.

Txosten hau Karen Moreno Orduña kontu-ikuskatzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**MAILA GORENA CON CERDEP PROGRAMAN****GOMENDATUTAKO GUTXIENKO MAILA**

- a. **Zuzendaritza orduak:** modulu honek zuzendaritza, koordinazioa, administrazioa eta atezaintza biltzen ditu.

55 ordu erabiltzaileko eta urteko
-----------------------------------

- b. **Zerbitzu orokorretako orduak:** modulu honek garbiketa, ikuztegi lanak, sukaldaritza eta mantentze lanak biltzen ditu.

245 ordu erabiltzaileko eta urteko
------------------------------------

- c. **Arreta soziosanitario eta errehabilitazioko orduak:** modulu honek medikuak, psikologoak, erizainak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, gizarte langileak eta aisia eta astialdiko begiraleak biltzen ditu.

	Mendekotasun handia eta 2. mailako mendekotasun larria	Mendekotasun arina eta 1. mailako mendekotasun larria	Mendekotasunik ez
Arreta soziosanitaria	131,5 ordu erabiltzaileko eta urteko	89,52 ordu erabiltzaileko eta urteko	17,88 ordu erabiltzaileko eta urteko

Zuzendaritza, ikuskaritza eta jarraipena entitatearen arduradunen kargura egonen da, eta zentroek ondoko espezialitateetako zerbitzu profesionalak, berezkoak, itunduak edo publikoak izan beharko dituzte, Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako intentsitateekin: Medikuntza Orokorra, Psikologia, Erizaintza, Fisioterapia, Terapeuta Okupazionala eta Gizarte Lana. Zerbitzuak eremu publikoan egiten direnean, departamentu arduradunak zehaztuko ditu zerbitzuaren intentsitatea eta baldintzak.

- d. **Arreta asistentzialeko orduak:** modulu honek zaintzaileak biltzen ditu.

	Mendekotasun handia eta 2. mailako mendekotasun larria	Mendekotasun arina eta 1. mailako mendekotasun larria	Mendekotasunik ez
Zaintzaileak	600 ordu erabiltzaileko eta urteko	300 ordu erabiltzaileko eta urteko	150 ordu erabiltzaileko eta urteko

**GOMENDATUTAKO MAILA GORENA**

- 1) ZENTROKO ERABILTZAILA KOPURUAREN, LANGILE KOPURUAREN ETA AZALERA ERABILGARRIAREN ARABERA ALDATZEN DIREN RATIOAK.

- a) **Zuzendaritzako ratioak.** Modulu honek zuzendaritza, koordinazioa, administrazioa eta atezaintza biltzen ditu.

- Zuzendaritza:

- \* Gehienez 50 erabiltzaile dituzten zentroak: 0,75 pertsona lanegunetan.

- \* 51 erabiltzaile edo gehiagoko zentroak: 1 pertsona lanegunetan.

- Koordinazioa:

- \* Gehienez 40 langile dituzten zentroak: 0 pertsona.

- \* 41-80 langile bitarteko zentroak: 0,50 pertsona lanegunetan.

- \* 81 langile edo gehiagoko zentroak: 1 pertsona lanegunetan.

- **Administrazioa:**
    - \* Gehienez 25 langile dituzten zentroak: 0 pertsona.
    - \* 26-60 langile bitarteko zentroak: 0,50 pertsona lanegunetan.
    - \* 61-95 langile bitarteko zentroak: 1 pertsona lanegunetan.
    - \* 96-130 langile bitarteko zentroak: 1,50 pertsona lanegunetan.
    - \* 131 langile edo gehiagoko zentroak: 2 pertsona lanegunetan.
  - **Atezaintza:**
    - \* Gehienez 25 erabiltzaile dituzten zentroak: 0 pertsona.
    - \* 26-100 erabiltzaile bitarteko zentroak: 7 ordu txanda zatituan, egunero.
    - \* 101 erabiltzaile edo gehiagoko zentroak: 14 ordu goizeko eta arratsaldeko txandetan, egunero.
- a) **Zerbitzu orokorretako ratioak.** Modulu honek garbiketa, ikuztegiko lanak, sukaldaritza eta mantentze lanak biltzen ditu.
- Garbiketa: 2,8672 ordu metro karratu erabilgarriko eta urteko.
  - Ikuztegiko lanak: 55,25 ordu erabiltzaileko eta urteko.
  - Sukaldaritza: 90 ordu erabiltzaileko eta urteko.
  - Mantentze lanak: 0,2867 ordu metro karratu erabilgarriko eta urteko.

## 2) ERABILTZAILEAREN MENDEKOTASUNAREN ARABERA ALDATZEN DIREN RATIOAK

- a) **Arreta soziosanitario eta errehabilitazioko ratioak.** Modulu honek medikuak, psikologoak, erizainak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, gizarte langileak eta aisia eta astialdiko begiraleak biltzen ditu.

	Mendekotasun handia eta 2. mailako mendekotasun larria	Mendekotasun arina eta 1. mailako mendekotasun larria	Mendekotasunik ez
Medikuak	1 pertsona 100 erabiltzaileko	1 pertsona 125 erabiltzaileko	1 pertsona 150 erabiltzaileko
Psikologoak	1 pertsona 200 erabiltzaileko	1 pertsona 200 erabiltzaileko	1 pertsona 150 erabiltzaileko
Erizainak	137,85 ordu erabiltzaileko urtean	89,60 ordu erabiltzaileko urtean	44,80 ordu erabiltzaileko urtean
Fisioterapeutak	1 pertsona 75 erabiltzaileko	1 pertsona 125 erabiltzaileko	1 pertsona 175 erabiltzaileko
Terapeuta okupazionalak	1 pertsona 150 erabiltzaileko	1 pertsona 100 erabiltzaileko	1 pertsona 200 erabiltzaileko
Aisia eta astialdiko begiraleak	1 pertsona 200 erabiltzaileko	1 pertsona 175 erabiltzaileko	1 pertsona 150 erabiltzaileko
Gizarte langileak	1 pertsona 175 erabiltzaileko	1 pertsona 150 erabiltzaileko	1 pertsona 125 erabiltzaileko

Toki gutxi dituzten egoitzetan, eremu publikoko langileak aritu ahal izanen dira arreta medikoaren eta arreta psikologikoaren arloetan eta beste batzuetan, salbuespenez. Haien ardura duen departamentuak erabakiko ditu zerbitzuaren intentsitatea eta baldintzak.

- b) **Arreta asistentzialeko ratioak.** Modulu honek zaintzaileak biltzen ditu:

	Mendekotasun handia eta 2. mailako mendekotasun larria	Mendekotasun arina eta 1. mailako mendekotasun larria	Mendekotasunik ez
Zaintzaileak	814,55 ordu erabiltzaileko eta urteko	407,27 ordu erabiltzaileko eta urteko	203,64 ordu erabiltzaileko eta urteko

## II. ERANSKINA. 2012ko MODULUAK MENDEKOTASUNAREN EREMUAN KONTRATATURIKO ADINEKOENTZAKO ZENTROETAN

2012an indarrean zegoen modulua (eurotan)

	Mendek. handia eta II. mailako mend. larria	I. mailako mend. larria eta mend. arina	tendekotasuni e
Santa María egoitza (Los Arcos)	1.567	-	-
Virgen del Portal egoitza (Alesbes)	1.592	-	-
Dionisio Salcedo egoitza (Mendabia)	1.631	1.074*	-
San Sebastián egoitza (Andosilla)	1.648	-	-
Virgen de Jerusalén egoitza (Artaxoa)	1.683	1.071	-
San Gregorio egoitza (Buñuel)	1.698	1.091	-
San Fco. Javier egoitza (Faltzes)	1.700	1.033	-
Virgen del Carmen egoitza (Sesma)	1.707	-	-
San José etxea (Corella)	1.740	-	-
San Miguel egoitza (Funes)	1.760	-	-
San Bartolomé egoitza (Martzilla)	1.760	1.132*	-
La Milagrosa egoitza (Erriberri)	1.779	1.093	-
San Miguel egoitza (Azkoien)	1.792	-	-
El Pinar egoitza (Milagro)	1.852	1.126*	-
Santa Elena etxea (Barasoain)	1.860	-	-
Carmen Bellido egoitza (Cortes)	1.873	1.269	-
San Jerónimo egoitza (Lizarra)	1.874	-	-
Joaquín Iriarte egoitza (Elizondo)	1.894	-	-
Nuestra Sra. de Gracia egoitza (Viana)	1.909	1.205	-
Las Améscoas egoitza (Eulate)	1.913	-	-
Zahar Egoitza (Lodosa)	1.940	-	-
San Fco. Javier egoitza (Fustiñana)	1.946	1.134	-
Solidaridad egoitza mistoa (Castejón)	1.950	-	-
José Ramón Zalduendo egoitza (Caparroso)	1.953	-	-
Valle Salazar egoitza (Otsagabia)	1.954	1.269*	-
Tomás, Lidia y Javiera egoitza (Kaseda)	1.961	1.220	-
Andra Mari egoitza (Lesaka)	1.983	1.232	-
Aita Barandiaran (Altsasu)	1.994	1.304	937
Santa Zita egoitza (San Martin Unx)	2.022	1.310*	-
Nuestra Sra. de Gracia egoitza (Tutera)	2.090	-	-
San José egoitza (Bera)	2.097	-	-
San José egoitza (Valtierra)	2.253	-	-
San Manuel y San Severino egoitza (Tafalla)	2.258	1.438	916
Erruki Etxea (Iruña)	2.269	-	-
Amma Argaray egoitza (Iruña)	2.360	-	-
Beloso Alto egoitza (Iruña)	2.360	-	-
El Mirador egoitza (Iruña)	2.360	1.533*	-
Landazabal egoitza (Burlata)	2.360	1.533*	1.061*
Amma Mutilva egoitza (Mutiloa)	2.360	1.533*	1.061*
Amma Oblatas egoitza (Iruña)	2.360	1.533*	1.061*
Torre Monreal egoitza (Tutera)	2.360	-	-

\* Zenbateko hauek barruan hartzen dute ehuneko lauko BEZa, zentroa kudeatzen duen entitatearen kalifikazio juridikoaren ondorioz.

### III. ERANSKINA. 2012an INDARREAN ZEUDEN EZGAITASUNAREN ARLOKO KONTRATUEN ZERRENDA

2012an indarrean zegoen urteko modulua, eurotan (1)							
Zentroa	Jabetza	Kudeaketa	Egoitza	Eguneko zentroa	Etxebizitza funtzionala	Atsedenerako etxea	Larrialdietarako tokia
ADACEN zentroa <sup>(3)</sup>	Pribatua	Pribatua	-	21.670	24.349	46.019	46.019
Ademna zentroa	Pribatua	Pribatua	-	12.596	-	-	-
Atalaya zentroa	Publikoa	Pribatua	49.900* (2)	23.211*	-	-	60.359*
Carmen Aldave zentroa	Pribatua	Pribatua	58.300	-	-	-	-
Infanta Elena zentroa	Publikoa	Pribatua	52.594*	25.831*	-	-	52.594*
Las Hayas zentroa	Publikoa	Pribatua	68.942*	23.744*	-	-	68.942*
Oncineda eta Monjardín zentroak	Publikoa	Pribatua	49.592*	20.568*	-	-	-
Las Torchas etxebizitza funtzionala	Publikoa	Pribatua	-	-	30.114*	-	-
Mendebaldea etxebizitza funtzionala	Publikoa	Pribatua	-	-	26.468*	-	-
Vencerol etxebizitza funtzionala	Publikoa	Pribatua	-	-	24.599*	-	-
Pamplona etxebizitza funtzionala	Pribatua	Pribatua	-	-	29.009*	-	-
Zangozako Anfas etxebizitza funtzionala	Pribatua	Pribatua	-	-	20.178	-	-
Tafallako Anfas etxebizitza funtzionala	Pribatua	Pribatua	-	-	21.290	-	-
Ramón y Cajal zentroa <sup>(3)</sup>	Pribatua	Pribatua	42.515	26.087	-	-	68.603
Valle del Roncal zentroa	Publikoa	Pribatua	44.271*	22.715*	-	-	-

(1) Zentro bakoitzari ordaintzen zaizkion moduluak ageri badira ere, kontuan hartu behar da ez direla konparagarriak, prestazioen erabiltzaileek askotariko profilak dituztelako eta, ondorioz, baliabideen kontsumoa ez delako beti berdina.

(2) La Atalaya zentroan gainera portaera arazotsuetarako modulu bat dago 15 tokirekin, eta urtean 60.359 euroko prezioa ezarri da betetzen den toki bakoitzeko (% 4ko BEZa barne).

(3) Egoitzako eta etxebizitza funtzionaleko moduluak, Ramón y Cajal eta Adacen zentroetan, ez dute barruan hartzen eguneko arreta, eguneko zentroa zabalik dagoen egunetan.

(\*) Zenbateko hauek barruan hartzen dute % 4ko BEZa.

#### IV. ERANSKINA. 2012an INDARREAN ZEUDEN BURU-ERITASUNAREN ARLOKO KONTRATUEN ZERRENDA

Zentroa	Jabetza	Kudeaketa	EPSZ (€/orduko)	2012an indarrean zegoen hileko modulua (eurotan)			
				Egoitza	Eguneko zentroa	Zaintzapek etxebizitza	Larrialdietarako plaza
Elizondoko EPSZ	Pribatua	Pribatua	7,74	-	1.288	-	-
Lizarrako EPSZ	Pribatua	Pribatua	7,84**	-	967*	-	-
Iruñeko EPSZ	Publikoa	Pribatua	8,20**	-	1.003*	-	-
Tuterako EPSZ	Pribatua	Pribatua	7,49**	-	948*	-	-
Félix Garrido zentroa	Publikoa	Pribatua	21.011**(1)	1.908*	811*	-	2.638*
Benito Menni zentroa	Pribatua	Pribatua	-	2.012	-	-	-
Padre Menni zentroa	Pribatua	Pribatua	-	2.012	-	1.291	-
Tuterako zaintzapeko etxebizitza	Pribatua	Pribatua	-	-	-	1.049	-

(1) Kasu honetan ez zen negoziatu orduak zenbat euroko kostua izanen zuen, hileko moduluak erabiltzaile guztientzat zenbateko kostua izanen zuen baizik.

(\*) Zenbateko hauek barruan hartzen dute % 4ko BEZa.

(\*\*) Zenbateko hauek barruan hartzen dute % 4ko BEZa.



